

# GUAIXE.EUS



**380 irristalari lehiatuko dira Olatzagutian bihar**



**Kirolak >> 11**

**Lezeetatik inauterirako saltoaren irudi bidezko azalpena film-labur batean jaso du Beatriz De la Vegak. Gaur, 20:00etan, Altsasun ikusgai**



**Kultura >> 15**

## Turismo oinarriak garatzera



**>> 9**

**Altsasuko Udalak aurrekontua onartu du**

6,85 milioi euro kudeatuko ditu

**>> 5**



**Militarren ariketen kontra**

Uharte, Arbizu eta Etxarriko alkateek salatu dituzte

**>> 7**

**Sakandarren %6,86 kontzejutan bizi da**

Guztira 1.390 pertsona dira

**>> 7**



**Erabakitze eskubideaz ariko dira Irurtzunen**

Bihar, 12:00etan, udaletxean

**>> 8**

**Dokumentala garai bateko Lakuntzari buruz**

**>> 7**

**Bakaikun euskalkiari bulkada ematera**

**>> 3**



**Parte-hartze prozesua martxan Bakaikun**

**>> 7**



**11k Madrilen epaitzearen aldeko epaia Iruñean**

**>> 8**



**Altsasuko Krosa jokatu da igande eguerdian**

**>> 13**

## Etxebizitza eta eraikuntza gehigarria 2017

Martxoak 24

- Arkitektoak
- Gremioak
- Seguruak
- Hipotekak
- Dekorazioa
- Zaharberitzeak
- Ebaluaketa txostena
- Domotika
- Dekorazioa

Publizitatea jartzeko epea: martxoak 10ra arte  
948 564 275 | publi@guaixe.eus | publicitatea@guaixe.eus

# ZORION agurrak

Argazkiak emateko lekuak: • Altsasu: Foru Plaza 23-1 • zorion@guaixe.eus  
• Ordainketa, Guaixeren bulegoan edo ondoko kontu zenbakian egin daiteke:  
3035 0018 47 0181012564

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!



**DEKOVEN NAVARRA**  
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovennavarra.com  
www.dekovennavarra.com  
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · **ALTSASU**  
Telf./Faxa: **948 468 360** · Telefono mugikorra: **690 641 860**



**Kimetz**  
ZORIONAK DAN-TZARI!!! 8 urte dago eneko! Segi beti bezala maitia, beti barrez eta bizitzaz gozaten! Asko maite zaitugu! Aitabxo, amatxo eta Ixone.

**Iepa Gorka!!!**  
Ostegunien 2 urte bete-kottuzu, jo! Ze haundiye zara. Ia ospatzen degun txokolate goixo goixo bat artubes. Muxu asko eta zorionaak. Zure famelikuek

## Bazkideek deskontua

**Bakarra:**

**4,00€**

**Bazkideek:**

**3,50€**

## Otsailak

# 17-23

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: [gutunak@guaixe.eus](mailto:gutunak@guaixe.eus)

### Musika

**Orreaga 778, Nafarroa 1512 eta Trouz An Noz.** Otsailaren 17an, ostiralean, 22:00etan Altsasuko Gaztetxean.

**Embajada.** Otsailaren 18an, larunbatean, 23:30ean Lakuntzako Sorgiñak tabernan.

**Ganbera musika.** Otsailaren 21ean, asteartean, 17:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasuko Musika eta Dantza Eskola.**

### Antzerkia

**Happy End.** Otsailaren 18an, larunbatean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Vaiven producciones.**

### Magia

**Hodei magoa.** Otsailaren 17an, ostiralean, 23:00etan Olatzagutiako Barandi tabernan.

### Dokumentalak

**Pedaleando por los refugiados.** Otsailaren 17an, ostiralean, 19:00etan Lakuntzako kultur etxean. **Xabi Luna suhiltzailea.**

**Adarrak dantzan.** Otsailaren 17an,

ostiralean, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Lakuntzatik Lakuntzara. Aurkezpena.** Otsailaren 18an, larunbatean, 18:30ean Lakuntzako kultur etxean.

### Zinema

**Neruda.** Otsailaren 17an, ostiralean, 21:45ean eta otsailaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.



**Vuelta a casa de mi madre.** Otsailaren 17an, ostiralean, 22:00etan eta otsailaren 19an 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

**Ballerina.** Otsailaren 19an, domekan, 12:00etan eta 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

**Figuras ocultas.** Otsailaren 23an, ostegunian, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

### Mendi irteerak

**Galdeano-Lokiz-Ganuz.** Otsailaren 19an, igandean, 7:30ean Olatzagutiatik. **Sakanako Mendizaleak.**

**Sozarreta-Txurruko punta-Etzegarate-Balankaleku.** Otsailaren 19an, domekan, 8:00etan Altsasutik. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

### Bizikleta irteerak

**Urdazubi (35 km).** Otsailaren 19an, domekan, 7:15ean Altsasuko Barranka txirindulari taldeko mendi bizikleta taldearen bajeatetik.

### Erakusketak

**Sakanako ihoteak.** Otsailaren 18tik 28ra, arratsaldean, Arbizuko udaletxeko batzar gelan. **Mikel Nazabal.**

**Altsasuko inauteriak.** Otsailaren 21etik martxoaren 4ra arte astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara, Altsasuko lortia kultur gunean.



### Hitzaldiak

**Gure ihoteak ezagutzen.** Otsailaren 17an, ostiralean, 19:00etan euskaraz, eta otsailaren 18an, larunbatean, 19:00etan gaztelaniaz Olatzagutiko kultur etxean. **Hizlaria: Adelaida Kintana.**

**Zaindu zure dirua.** Otsailaren 21ean, asteartean, 18:00etan Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlaria: Carlos Faro.**

**Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea.** **Errespetuzko komunikazioa.** Otsailaren 22an, asteazkenean, 15:30ean Altsasuko Sakana Lanbide Heziketa institutuan. **Hizlaria: Nerea Mendizabal.**

### Hizketaldia

**Euskararen isobarak (Pako Aristi).** Otsailaren 20an, astelehenean, 19:30ean Ihabarko elkartean. **Astelehen Zoriontsuak.**

### Literatura

**Atlas de islas sin coches.** Otsailaren 20an, astelehenean, 19:00etan Altsasuko Haritza tabernan. **Andar Claver Goikoetxea.**

### Mahai-ingurua

**Erabakitze eskubideaz.** Otsailaren 18an, larunbatean, 12:00etan Irurtzungo udaletxean. **Jose Beloki (Geroa Bai), Eneko Compais (EH Bildu) eta Iñigo Pascual (Ahal Dugu).** Irurtzungo Gure Esku Dago.

### Bestelakok

**Euskalkiari buruzko bilera.** Otsailaren

17an, ostiralean, 18:30ean Bakaikuko udaletxean.

**Sukaldapostreak.** Otsailaren 17an, ostiralean, 18:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

**Inauteriko pertsonaiak gertutik ezagutzen.** Otsailaren 18an, larunbatean, 18:00etan Altsasuko mojen gimnasioan.

**Billar txapelketa.** Otsailaren 18an, larunbatean, 18:30ean Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.

### Deialdiak

**Altsasukoak aske.** Otsailaren 17an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko udaletxean.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 17an, ostiralean, 20:00etan Arbizuko eta Etxarri Aranazko plazetan, elkarretaratzeak.

**Sakanan 117 torturatu. Bakearen bidean... desmilitarizazioa.** Otsailaren 18an, larunbatean, 13:00etan Altsasuko tren geltokian. **Sakanako Sortu.**

**Nolako Bakaiku irudikatzen dugu hamar urte barru?** Otsailaren 18an, larunbatean, 18:00etan Bakaikuko Udaletxean. Batzarra.

**Beilatokia toki egokian. Nahi izanez gero posible da.** Otsailaren 19an, igandean, 12:30ean Etxarri Aranazko Kale Nagusiko 7. zenbakian.

**Euskal Presoak Euskal Herrira!** Otsailaren 19an, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

**Ostiralero**  
**SAIOA**  
9:30ean

Errepikapenak: 14:00 - 19:00

Asteleheneetik ostegunera  
**Metropoli forala**  
9:00etatik 11:00etara

Esataria: Maider

Gaurko gaiak:

- Bakaikuko euskalkiari buruzko dinamika.
- Sakanako turismo plana.
- Bakaikuko parte hartze prozesua.

107.3 FM  
**beleixe**  
www.guaixe.eus-en ON LINE

**INAUTERI DESFILERAKO PREST?:** Otsailaren 25ean, 18:00etan, egingen den ihote desfilean parte hartzeko izena eman Piku-xarren, irurtzungoga@gmail.com edo kul-

tur etxean asteazkena baino lehen. Taldearen izena, baten izena eta telefonoa, adina eta desfileko kantua eman behar dira.

# ezkaatza >>

## >> Bakaiku

# Euskalkiari bultzada emateko asmoa



**Gaur, 18:30ean, Bakaikuko udaletxean bilera**

Toki eta ordu berean. Aste bat beranduago. Gaur. Hala hitzartu zuten joan den ostiralean [www.euskalkiak.eus](http://www.euskalkiak.eus) web orriaren aurkezpenean elkartu ziren 25 bat bakaikuarrek. Euskalkien inguruko Interneteko ataria aurkeztera Koldo Zuazo hizkuntzalaria etorri zela baliatuta galdera luzatu zioten: bertako euskara ikasteko, oinarritzeko, zer egin daiteke? "Gogoa da garrantzitsuena".

Hizkuntzalariak ohartarazi zuen ezin izan dela garai bateko Bakaikuko euskalkia piztu. Baina bertako hitz eta esamoldeek euskarari "kolorea" emateko baliagarriak direla gaineratu zuen. Zuazok ostiralean jakinarazi zuenez, Burudako hiztegia sortzeko lana martxan da. Hitzak jasotzen ari dira. Bakaikuarrei hiztegia osatzeko auzolana proposatu zien Zuazok, "hitzak jaso eta jakinarazi". Zuazok nabarmendu zuenez, gramatikarekin batera "hiztegia garrantzitsua da, gauzak nola izendatu diren jakiteko".

Bakaikuko eta Burundako euskalkiari buruzko materiala jasoa dagoela gaztigatu zuten. Asmoa hura "geldi-geldi, beldurrik gabe erabiltzen hastea da". Altsasuarrei AEKn euskalkia erakusten dien Aitor Irigoien urdiaindarrak azaldu zenez, eskolen helburua "hitz egitea da". Bileran izan zirenek Urdaingo eta Bakaikuko euskalkiak oso antzekoak direla izan ziren. Antzeko soinua dutela. Zuazok: "beti desberdintzen gaituenean fijasen gara eta ez batzen gaituenean. Batzen gaituena infinitua da. Burundak nortasuna du. Burundakoa atera aurrera".

## Zergatia


Ostiraleko bileran izan zirenak gaurko bileran ere izanen dira. Haietako hainbat Bakaikuko Gazte Asanbladako kideak dira. "Denbora bat da euskalkia berreskuratzeaz hitz egin genuena; Herrian ere zabaldu da. Bakaikuko hizkera zer edo zer jakitea gutxienez". Amonari entzundako hitz solteak gogoan zituen beste batek eta "urdiaindarrei ere, eta inbidia pixka bat ematen zidaten. Gogo hori

sortu zen". Beste gazte batek esan zigun berarendako "oso garrantzitsua zela Bakaikuko euskararen zerbait jasotzea".

Bileran izandako gazte batek herriko hizkera zekien aitonen baten heriotza gogora ekarri du: "ordu hasi ginen: hau ezinezkoa da. Altxor bat galtzen ari gara eta horren bila gabiltza. Horregatik etorri naiz". Euskalkiarekin betidanik interesa zuenik era bazen bileran: "aitonarekin pixka bat ikasi nuen, nire kabuz ere saiatu nintzen gehiago. Hobetzeko zer egin daitekeen, horregatik etorri naiz. Zeren gurea da eta gurea zaindu beharra daukagu". Azken batek esan zigunez, "zerbait egin behar da. Bakaikuko euskara galtzen ari da, gutxi batzuk dira hitz egiten dutenak. Ea jendea biltzen garen eta zerbait mugitzen den".

## Batuaren eta euskalkien alde

Mendiko botak, etxeko zapatilak, txankletak, sandaliak, zapatilak, oinetakoak, ezpartinak... "Zein da oinetako onena? Bakoitza bere tokian. Euskararekin berdina! Euskara batua, euskalkia, lagun artekoa, gazte hizkera, argota... denak behar ditugu. Euskaldunok sortu behar ditugu". Hala azaldu zuen Zuazok bere ikuspegia. "Euskara batua elkarri ulertzeko ezinbestekoa da. Gorde beharreko aktiboa. "Euskara batuaren, estandarren, eta euskalkiaren alde gaude eta eta hori erakutsi nahi dugu [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus) orrian".



## >> Urdaian

# Euskaraz hitz egiteko, txangora!

**Urdaingo Gurasoen Euskara Batzordeak haurren artean euskaraz hitz egitea sustatzeko txangoak antolatzea erabaki du. Lehenengoa martxoaren 25ean antolatzea aurreikusten da**

Kezka bati erantzunez sortu zen, aurreko urtean, Urdaianen, Urdaingo Gurasoen Euskara Batzordea. Izan ere, Urdaingo haurren artean gaztelania gero eta gehiago erabiltzen da. Gaia aztertzeko, Urdaingo Udalak Iñaki Eizmendiren aholkularitza zerbitzua kontratatu zuen, gurasoak bilera deitu zituzten eta aholkularitza zerbitzuaren Ebeta egitasmoarekin Urdaianen euskararen erabilera areagotzeko kanpaina antolatzeari ekin zioten.

## Eusliek kanpaina

Herriko txikien artean euskararen erabilera sustatzeko Eusliek edo guraso eusleen kanpaina antolatzen 2016ko garagarrean, gurasoen jarreran eragin eta haiek seme-alabendako eredu bihurtzitez. 21 gurasok, astero txandakatu, txapa bat zuten euskararen eusleak zirela adierazten zuena. Haiekin euskaraz hitz egiteko gonbidapena zen hura. Asteazkenean Urdaingo Gurasoen Euskara Batzordea bildu zen. Lehenik, Eusleak kanpainaren balorazioa egin zen. Eusleak izan ziren gurasoei balorazio orribat pasaz itzaien eta haiek erantzundakoaren arabera, kanpaina orokorrean positiboa eta baliagarria izan zela ondorioztatu zen.

## Euskararen erabilera sustatzeko txangoak

Ondoren, txikiengan euskararen



erabilera sustatzeko zein bideetik jarraitu erabaki zuten bileran bildu zirenak. Hainbat aukera aztertu ondoren, txikiengan txangoak antolatzeak alde egiteko ideia erabaki zen. Jakina, euskaraz. Txango hauek euskara erabiltzeko guneak bezala planteatu dira, euskararen arnagune moduan. Txangoa 6 eta 12 urte arteko neska-mutikoei begira antolatuko da. Txangoaren helburua, argi eta garbi, euskaraz egitea da, eta, horregatik, izena emango duten gurasoek euskaldunak beharko dute izan, eta euskaraz hitz egiteko konpromisoa hartu beharko dute. Bide batez, herriko txokoak ezagutzeko aitzakia polita izango da txangoa; herria ezagutu, bisitatuko diren txokoetako azalpen eta bitxikeriak entzun, jolastu eta arratsalde polita pasa, euskaraz. Urdaingo euskaldia ere erreferentia izango da.

Lehenengo txangoa martxoan antolatzea erabaki zen. Aldaketarik ezean, martxoaren 25ean izango da. Hurrengo egunotan ekimena antolatzeak bilduko da, atzera ere, Urdaingo Gurasoen Euskara Batzordea.

## Mankomunitateko Euskara Zerbitzua eta Mintzakide

Bestalde, asteazkeneko bileran, Sakanako Mankomunitateko euskara teknikari Izaskun Razkinek Mankomunitateko Euskara Zerbitzuti eskaintzen dituzten zerbitzuen berri eman zien gurasoei eta Sakanako Mintzakide egitasmo arduradun Edurne Ruizek Urdaianen Mintzakide taldea dagoela gogoratzeaz gain -asteazkenean, 19:00etan, liburutegian- txangoen egitasmoak aurrera jarraitzen badu Gurasolagun Mintzakide taldea sortu ahal dela ere aipatu zien guraso urdiaindarrei.

## >> Olatzagutia

# Industrialdeko partzelak prezio berean

Nafarroako Gobernuak berak sustatutako industrialdeetako lur-

sailen salmenta prezioa joan den urteko berak izatea erabaki du gaurko bileran. Foru administrazioak sustatutako industrialde horien artean dago Olatzagutiako Arkinoruti industrialdea. Interesatuek metro karratu bakoitzeko



39,75 euro ordaindu beharko lituzkete, dagokion BEZ-arekin batera.



**Aurrematrikula**  
martxoaren 2tik 16ra

**Ate irekiak,**  
otsailaren 21ean  
17:00tan

[www.kattuka.com](http://www.kattuka.com)

info@kattuka.com • Uhalde kalea z/g • Arbizu • 948 567 009

- 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat diseinatutako instalakuntzak.
- Hezkuntza proiektu propioa eta berritzailea. Haurraren garapen integrala eta banakako erritmoak aintzat hartzen duena.
- Ordutegi eta zerbitzu anitzak



Marian Mendiola Barandalla

## Balendintxoren bihotz gorriak

**astekoa**

Maitasun erromantikoaren egun seinalatuaren taupada hotsen burrunbarekin eta "Cincuenta sombras más oscuras" pelikularen estreinaldi "interesatuaren" bueltan, nor ez ote da nazka-nazka eginda gelditu?

Maitasunak, egun horietan, supermerkatu ezagun batek iragartzen duen "Tu y yo gorringodun" pas-

tel melengaren moduko itxura hartzen du. Eskerrak maitasuna ulertzeko beste modu batzuk badirela, Chavela Vargasen inguruan Berlinalean aurkeztutako dokumentalak erakusten digun moduan.

Emakume feministek edo inguru feministetan dabiltzanek maitasunaz hausnartzeko eta eztabaidatzeko premia mahai gainean

dute. Oraindik orain, maitasunaren izenean sufrimendua, menpekotasuna eta berdintasun eza antzematen delako. Berdintasunean oinarrituriko gizartearen alde ari direnak ez daude inposatutako eredu onartzeko prest. Kontsumoa, maitasun eredu bakarra eta erotismo jakin batzuk bultzatzen dituzten mezu-erasotzaile

ideologiko horiek modu kritikokan begiratzeko, aztertze eta aurre egiteko eredu berriak, gakoak eta errekurtsoak eskaintzen ari dira. Erreparatu diezaiegun.

Aurretik bide luzea dugu, orain arteko maitasun eredu deseraiki eta berria eraikitze. Inork ez du lortzen, egun batetik bestera, bere burua deseraikitzea; gizarte eredu

erlaldatzea ere ez da xamurra. Unibertsitateko Arteko irakasle batek zioen moduan erlaldaketak ez datoz egun batetik bestera; Erromanikoan lotaratu zirenak ez ziren hurrengo egunean Gotikoan esnatu. Baina, garbi izan, bezperan, apurka-apurka egindako aldaketa haiek guztiak egunsentiarekin batera antzemango zituztela (ditugula).

## hara zer dien

### Errefuxiatuekiko erabateko errespetua eta miresmena

Ez nuen sekula pentsatuko tamaina honetako basakeriarik ikustera iritsiko nintzenik.

Tamalez, eta bigarren goz, errealitateak fikzioa gainditu du, Greziako "errefuxiatuen kanpamentuetan". Babes bila abiatu eta honakoa aurkitu: Zergatik ia ez dago inor kanpoetan? Ez militarrik, ez GKERik ia ia, ez boluntariorik kasik...

Zergatik urruntzen dira denak,

han hilabeteak itxoinen daramatenak izan ezik? Gizon, emakume, haur... berdin du.

Zeri itxoin? Erantzuna? ISILTASUNA. Segundoak bukaezinak bihurtzen dituen isiltasun zartatzailea. Munduak berak utziak daude, bizitzaren suertera kondenaturik; noraezean. Irrifar iheskorak haien ezpainetan, egoera sufriezinean. Begirada galduak, lapurturiko itxarope-

nak, ilusio izoztuak, betirako desagertzetik hurbil.

**Angustia, izua.**

Babestu eta mantendu ezinezko emozioak, afektuak. Han irauten duten bakarrak haiek direlako. Gainontzekook, joan etorrikoak gara. Gizakiaren osotasuna zeinen arina den adierazten duten brote psikotikoak. Osasuntsua ez den erretzeko erritualaren hasiera, haiek oso ongi adierazi

diguten moduan: "Zer du ba bizitza honek ona niretzat?"

Aurre egiteko zailak diren zero azpitiko tenperaturak, egiteko bakarra eta nagusia itxoitea denean. Eguzkiak ere ez du berotzen, ixildutako ahotsak, ikusezinak bihurtu diren gizakiak, kolpean deusezturiko etorkizunak, plazakako gizatasuna, elkartasun ez jarraia, hildako bizitzak, bizirik dauden hildakoak, bukaera-

ra iristen ez diren arnas estuak, angustiak barrenak betetzen dizkietelako; hasperen itoak, moztuak, oin hutsak, edozein arriskueta jarriak. Irrifarra eta desesperazioa ia une berean.

Giza eskubideen urraketa basati honen ginetik, haiekiko erabateko ERRESPECTUA, eta MIRESMENA. Hasi berri den urteak, guzti hau sortu eta mantentzen duten erantzuleei, ekar diezaiela behar den adorea, sarraski gogaikarri honekin bukatzeko. Hala bedi.

ONGI ETORRI ERREFUXIATUAK.

**Sakanako inmigratio zerbitzuak**

## gutunak

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea

eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen

eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza, 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.eus edo 948 564 275 telefonoa.**

### Sakanan 117 torturatu

Unai Razkin, Beñat Agirre eta Maitane Intxaurreaga (Sakanako Sorturen izenean)

1981eko otsailaren 13an, jasandako torturen ondorioz hil zen Joxe Arregi. 36 urte pasatu dira egun hartatik, eta urtero torturaren aurkako egun gisa gogoratzen dugu otsailaren 13a.

1960-2010 bitartean, Euskal Herrian, 5.022 torturatu daude erregistratuta, akreditatuta, salatuta... Gehiago izanen dira ziurrenik. Sakanan 117 lagun, 117 esperientzia latz bezain ahaztu ezin.

Horrelakorik gehiago ezin da gertatu. Horretarako, lehendabizi aitortza bat egon behar du. Tortura Estatu espainiarrak erabili duen metodo sistematikoa izan dela aitortu behar da, erreparazio bat eman dadin. Azkenik,

errepikatu ez dadin, bake prozesu oso eta integral bat bultzatu behar da, militar politikook, ez inork, halakorik inoiz jasan ez dezan.

Bakearen bidean, eremu askotan askatu behar dira korapiloak, horietariko bat desmilitarizazioarena da. Euskal Herriak behar duen polizia eredu, hemen eztabaidatu eta erabaki behar da. Gure ustez, parametro militarista-errepresiboak baztertuz, oinarri demokratiko eta jendar-tearen zerbitzura jartzeko asmoa beteko duen zerbitzu publiko gisa, kontrol zibil-publiko oinarrian kokatuz. Egun honetan, tortura jasan dutenak gogoan, herri honen desmilitarizazioa aldarrikatatu eta gizarte zibilaren ahal-duntzea bultzatzea da ibilbide zentzuzkoena, bidezkoena. Gerra egitera etorritakoek alde egin behar dute hemendik, kalterako

bestarik ez dira.

"Sakanan 117 torturatu. Bakearen bidean... desmilitarizazioa" lelopean, larunbat honetan 13:00etan Altsasuko Renfeko geltokian egingen dugun kontzentrazioa deitzen dugu Sakanako bakezale oro, askatasun demokratikoetan sinesten duen oro, giza eskubideak denondako direla aldarrikatzen duen oro.

### Udal aurrekontuak: desberdinen arteko akordioa

Javier Ollo Martínez, Altsasuko alkatea

2017. urtean udal aurrekontuen onarpenak garrantzia berezia dauka Udalarendako, urte honetan ditugun erronka guztiei aurre egiteko (...) Ongizate saileko diru kantitatea handitzen da, baita Gizarte Zerbitzuen Mankomunitaterako ekarpena

ere. Udal Haur Eskola berriko materiala erostea aurreikusten da (...) Aurrekontuetan aurreneko Altsasuko ikastetxei zuzenduta dagoen diru-laguntza deialdia agertzen da (...).

Deialdi honek orain arte Iñigo Aritzta ikastolari zuzenean ematen zitzaion diru-laguntza ordezkatzeko du. Deialdi honen garrantzia azpimarratu nahi dut. Izan ere, aurrekontuak onartzeko alderdi desberdinek adostasuna bilatu behar dute. Geroa Bain hori oso garbi dugu.

Aurrekontuen proiektuan Ikastolari zuzendutako diru-laguntza agertzen zen baina, Plantilla Organikoagatik EH Bilduk aurrekontuak negoziatzeko asmorik ez zuela jakitean, PSN eta Goazen Altsasurekin negoziatu genuen. Onartutako deialdia ez zegoen honi baietza eman dioten alderdien progra-

metan baina epe ertain eta luze batera begira, soluzio egokiena dela uste dugu. Alderdi desberdinen artean komuneko puntu batera ailegatu gara eta hori poztekoa da beti. Altsasuarrek hori nahi dute: alderdi desberdinen arteko akordioak eta hori egin dugu. (...)

Aurrekontuen onarpenak aurreikusita ditugun proiektuak gauzatzea posible egiten du. Altsasuarrek ez dute posizio maximalistari nahi beraien ordezkari politikoetan. Posizio hauek edozein negoziatzaile kalte asko egiten diote, baita ere aurrekontuen negoziatzaileari.

Aurrekontu hauen onarpenak zera erakusten du: akordioak lortzeko borondate politikoa dagoenean akordioak aberatsagoak dira eta etorkizuna askoz hobea.

Osorik: [www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

**Guaixe**  

**ERREDAKZIO BURUA:** Alfredo Alvaro Igoa • [guaixe@guaixe.eus](mailto:guaixe@guaixe.eus)  
**ERREDAKZIOA:** Maider Betelu Ganboa • [kirolak@guaixe.eus](mailto:kirolak@guaixe.eus)  
**MAKETATZAILA:** Ruben Imaz Alcaide • [maketazioa@guaixe.eus](mailto:maketazioa@guaixe.eus)  
**PUBLIZITATEA:** Maria Saez de Albeniz • [publizitatea@guaixe.eus](mailto:publizitatea@guaixe.eus)  
 eta Eneida Carreño Mundiñano • [publi@guaixe.eus](mailto:publi@guaixe.eus)

**ZUZENTZAILA:** Patxi Flores  
**ARGITARATZAILA:** Guaixe Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675  
**KOORDINATZAILA:** Goizeder Anton Iturralde • [fundazioa@guaixe.eus](mailto:fundazioa@guaixe.eus)  
**DISEINU ZERBITZUA:** GK • Ainhoa Etxeberria Pikabea • [gk@gkomunikazioa.eus](mailto:gk@gkomunikazioa.eus)  
**ADMINISTRAZIOA:** Gixane Andueza Goikoetxea • [admin@guaixe.eus](mailto:admin@guaixe.eus)  
**LEGE GORDAILUA:** NA-633/1995  
**TIRADA:** 3.200

### LAGUNTZAILEAK:

**BAZKIDEAK** 

**Mank**  
 s a k a n a

 **Nafarroako Gobernua**  
 Gobierno de Navarra

**ALTSASUKO GORTEETARA:** Nafarroako Parlamentuan atzo egindako bilkuran erabaki zuten Gorte Nagusiak premiatzea "presako izaerarekin ekin diezaioten Zigor

Kodeko 573. artikulua eta martxoaren 30eko 2/2015 Lege Organikoak ezarrirako terrorismo-kalifikazioa aldatzeari".

# sakanerria >>

>> Altsasu

## Geroa Baik eta PSNk aurrekontuak onartu dituzte

**Udalak 6.852.891,83 euroko aurrekontua izanen du aurten, Aita Barandiaran egoitza eta Udal Musika eta Dantza Eskolako barne. Udal zergak ez dira igoko**

Altsasuko Udalak aurtengo aurrekontuak onartu zituen ostiralean. Geroa Baik eta PSNk alde bozkatu zuten, Goazen Altsasu abstenitu egin zen eta EH Bilduk kontrako botoa eman zuen. UPNko zinegotzia ez zen bilkuran izan. Javier Ollo Martinez alkateak PSNk eta Goazen Altsasuk izan duten negoziatzaileak jarriera eskertu zuen. Ollok nabarmendu duenez, "aurrekontuek gakoak diren udalaren bi arlo garrantziaz ematen die: ekonomia garapena eta ongizatea".

Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitateari aurten 548.429,02 euroko ekarpena egitea aurreikusitako du. Ibarreko erakundeko aurrekontuak onartu gabe daude. Baina zirriborroan 16.866,63 euro gutxiago zehaztu dira. Hala balitz, udalaren diruzaintzako gerakinek poltsa handituko luke kopuru horrek. Burunda mendebaldeko Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitaterako ekarpena "nabarmen handitu" dela dio Ekonomia-Finantza Txostena. 278.367,23 euro dira. Babesutako Gizarte Enpleguko langileen soldataren igoerak, jubilotekaz zerbitzu berriak, Bocalan Biak Batekin egindako hitzarmenak

eta mankomunitateko langileen soldata %1 igotzeak ekarri du igoera hori. Udal eta udal erakunde autonomoetako langileek soldata igoera bera izanen dutela jakinarazi du Ollok.

Erakunde autonomoek dagokienez, Aita Barandiaran egoitzarako Altsasuko Udalak 107.859,49 euroko ekarpena egingen dio. Joan den urtean baino gutxiago, Nafarroako Gobernuak bere ekarpena handitu du. Udal Musika eta Dantza Eskolan egoera kontrako da eta udalaren ekarpena 221.955,74 euro-ra arte igoko da. Bestalde, Altsasuko ikastetxei zuzendutako 48.000 euroko diru-laguntza deialdia sortu du udalak. Iñigo Aritzak ikastolak jasotzen zuten diru-laguntza desagertu egin da.

Etxegabeen aterpea kamineroenak ziren etxeetako batera lekualdatzeko 50.000 euroko jaso dira aurrekontuan EH Bilduk proposatutako emendekin baten bidez. Alkateak zehaztu duenez, "diru-sail hori Nafarroako Gobernuaren diru-laguntza batena da eta bideragarritasun txostena egin ondoren diruzaintzako gerakinean gelditutako arekin handitu beharko da". Bestalde, Gizarte-kooperatzaileko proiektuak diruz laguntzeko 4.000 euro izanen ditu Altsasuko Udalak eta beste 1.000 nazioarteko larrialdi laguntzetarako.



### Ekonomia

Haren garapenera 73.392,2 euro bideratu ditu udalak; 46.392,2 euro Sakanako Garapen Agentziarako, 22.000 euro Cederna-Garalurrendako eta 5.000 euro ekintzaitza laguntzeko. Azken horren "kopurua txikia bada ere, ondorioztatu dugu zuzeneko laguntzen bidez ekintzaitza kultura sustatzeko ahalegina egin behar dugula". Orain arte fiskalitate arloan hobariak edo udal zergen salbuespenak izan dira. Urrats horrekin foru-araudian jasotakora hurbildu nahi

du udalak. Bestetik, ekonomia-sustapenerako 1.000 euroko diru-saila sortu du udalak, Altsasuko Dendarien Elkartearrekin edo bestelako erakundeekin sortu daitezkeen ekimenak laguntzeko.

Enplegua sustatzeko langileen kontratazioarako kopuru "garrantzi-

tsua" bideratu dela gaztigatu du Ollok: 78.150 euro. Horietatik 49.000 euro diru-laguntza bidez pagatzea aurreikusten du udalak. Alkateak nabarmendu zuenez, "joan den urtean hala egindako kontratazioak oso emaitza onak eman zituen eta aurten ere hala izatea espero dugu".

### Inbertsioak

Zer	Euroak
Txiribulo haur eskolako ekipamendua	72.000
Zelandi eskolako 1. solairuko komun berritzea	51.000
Haur eskola berriaren pareko plaza egiteko	25.000
Udal eraikinen energia-eraginkortasun azterketa	7.229,75

## Inbertsio aurreikuspenak

Onartutako aurrekontuaren %3, 213.273 euro inbertsioetara bideratuko da. Altsasuko Udalak oraindik ez ditu joan den urteko kontuak itxi, baina "lortuko dugun diruzaintzako gerakina izugarri garrantzitsua izanenda. Eta 2017-2019 Tokiko Inbertsioen Planak garrantzia handitzen du" gaineratu du Ollok. Udalaplana horretara aurkeztu beharreko memoriak prestatzen ari da.

Honako lanak dira egin nahi dituztenak: Zumalakarregi plaza eta Isidoro Melero eta Ermita kaleen sareak eta zoladura berritzea batetik eta, bestetik, udaletxea eraberritzea eta handitzea.

Alkateak honako konpromisoa ere hartu du: "inbertsioak egitea herritarren parte-hartze mekanismoekin uztartu ahal izateko prozesu baten oinarriak zehazteko Parte-

hartze, Ogasun eta Hirigintza Batzordearen bilera deitzea". Asmoa litzateke herritarrek parte hartzearen bidez egitasmoak aurkeztea, aztertuak izan daitezkeen eta denbora, teknika, ekonomia eta legalki bideragarriak direnak kontsulta bidez erabakitzea. Horretarako, diruzaintzako-gerakina ixtean, udalak diru-kopuru bat zehaztuko du.

## Udalak obra lantaldeko postuen hizkuntza irizpideak aldatu ditu

Altsasuko Udalak bere obra eta garbitasuneko lantaldeko lanpostuen hizkuntza irizpideak aldatu zituen. Aurreko legegintzaldian erabakitakoaren arabera, lanpostu horietarako ezinbestekoa zen euskara ezagutza jakin bat izatea. Ostiraleko aldatetaren ondoren euskararen ezagutza puntuatuko den meritua izanen da. Javier Ollo Martinez alkateak azaldu duenez, "aldaketarekin Altsasuko soziolinguistika-errealitatera egokitu dugu. Profil berriak ez dio jendarean lanean ari diren lanpostuei eraginen".

Hizkuntz Eskubideen Behatzaile Garbiñe Petriati Ijuria hizkuntza-eskakizuna kentzearen kontra azaldu da. Argudiatu duenez, "obra eta garbitasuneko brigadetako langileen funtzio eta zereginak herritarrengandik gertu,



Altsasuko kaleetan, eskolan eta udal eraikinetan egiten direla kontuan hartuz; herritarrekin zuzeneko hartu-emana egunerokoa eta oso indartsua izango dutela aintzat hartuz, Altsasuko herritarrek gertu dituzten udal langileak direla kontuan edukiz, lanpostuotan euskararen ezagutza nahitaezkoa izaten jarraitu behar duela" adierazi du. Aldatutako irizpideak udalak aurreko legegintzaldian hartu zituela gogorazi du. "Ez denez inolako aldatetarik egon lanpostu zeregin eta funtzioei dagokienez, ez da ulergarria eta onargarria lehen nahitaezkoa zena orain aukerakoa edo merezimendu kualifikatu gisa jotzea".

## Mank-i utzitako bi eskumenen inguruko ikerketa

Altsasuko Udalak Sakanako Mankomunitatearengan delegatuak ditu euskara eta kirol arloak. Bi arlo horiek bere gain hartzeak Altsasuko Udalarendako zein kostu izanen lukeen ikertuko dute aurten. Eta Mank-i horien gainetik gaur egun pagatzen diote-

narekin konparatuko dute. "Emaitzen arabera, udalak dagozkion neurriak hartuko ditu 2018ra begira".

### Alkatearen argudioa

Alkateak argudiatu duenez, "eskaintzen diren zerbitzuak aha-

lik eta eraginkorren izan daitezkeen" egingen da ikerketa. Eta egun Nafarroako udal maparen berrazterketa egiten ari dela gogorazi du. Geroa Baik eta PSNk aurkeztutako proposamenarekin bat egion zuten Goazen Altsasuk. EH Bildu abstenitu egin zen.

**Txooootx!**

**JUANLUZENA SAGARDOTEGIA**

**MAIATZERA ARTE txotx denboraldia zabalik**

**ODERITZ**  
948 604 571 | 680 652 183

**Sorgiñak** taberna

**LAKUNTZA**  
948 576 357

**Txalaparta**

**Taberna**

**948 467 070**  
Zumalakarregi plaza  
**ALTSASU**

## SAKANA

## Kontsumo arduratsuari buruzko saioak



Asteartean, 18:00etan, eta ostiralean, 10:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean

Etxarri Aranatz aldeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuetako kideen "aspaldioko kezka baten ondorioz" antolatuta dira kontsumo arduratsuari buruzko bi saioak. "Garai ekonomiko latz hauetan oso garrantzitsua iruditzen zaigu pertsonen hausnarketa bat egitea bakoitzaren diru sarrerak eta irteerak konpentsatu ahal izateko eta kudeaketa hobea egin ahal izateko". Mankomunitatetik azaldu dutenez, saioetan gastua murrizteari buruzko lan praktikoa, zorrak pilotzearen arriskuak, dirua kontrolatzeko zailtasunak, etxeko egunerokoan nola aurreztu, fakturak ulertzen ikastea eta beste gai batzuk aztertuko dira. Argibideak Carlos Farok emanen ditu, Zaindu zure dirua aholkularitzako ekonomia familiarrean aditua.

## Altsasu

## Autorik gabeko irlen aurkezpena

Astelehenean, 19:00etan, Altsasuko Haritza tabernan

Ander Claver Goikoetxeak eta Janire Nogales Prieto Atlas de las islas sin coche: Primera parte (2016, Saure) liburua idatzi dute, Laura De la Cruz Gonzalez ilustratzailearen laguntzaz. Hirukotea astelehenean elkartu eta liburuari buruzko azalpenak emanen dituzte Altsasuko Haritza tabernan. Han bertan jaso daitezke gonbidapenak. Liburua, berriz, Arkatz liburu-dendan dago eskuragarri. Bi establezimenduen artean antolatuta dute aurkezpena.

## Arakil

## Astelehen zoriontsurako proposamen berria

Astelehenean, 19:30ean, Ihabarko elkartearen

Elkartu eta gai baten inguruan euskaraz hizketatzeko, horretarako sortu zen Astelehen Zoriontsuak ekimena. Otsaileko hitzordua astelehenean dute. Ihabarko hitzorduan elkartzen direnak hizketa gai Pako Aristiren Euskararen isobarak liburuaren aurreneko ehun orriak izanen dituzte hizpide. Antolatzaileek parte hartzeko gonbidapena luzatu dute.

## Urdiain

## Robotika taldeak bi sari eskuratu ditu FLLn



Sariekin batera taldeko argazkia ateratzen

Nafarroako First Lego Leagueko (FLL) topaketak 22 taldetako 10 eta 16 urte bitarteko 230 bat gaztetxo elkartu zituen larunbatean. Iruñeko Planetarioan egin zen topaketa eta han talde parte-hartzaileek hainbat egiteko izan dituzte. Alde batetik, Emakume eta Neska Zientzialarien nazioarteko egunazela baliatuta haietako hainbaten lanaren berri ematen zuten posterrak erakutsi zituzten.

Urtero moduan FLLk gai bat jarri die gaztetxoei. Aurtengoa pertsonen eta animalien arteko

aliantza zen. Parte-hartzaileek munduak sortutako desafio baten aurrean konponbide berritzaile bat eman beharra dute, ikerketa, zientzia eta robotikaren bidez. Egitekoen artean zituzten balio proiektuak eta zientzia-konponbideak. Irailtik landutakoa zeinek bere standean erakutsi zuen. Urdiaingo robotika taldeak bi ordezkari aurkeztu zituen lehiaketara eta biak sariarekin bueltatu ziren: Elektrodinamika programazioaren saria eta Jentiltronika ekintzailetzarena.

## Bakaiku

## Santa Agedari agur

Asteburu bikaina pasa zuten Bakaikuko kintoek Santa Ageda ospa-

kizunetan. Larunbatean eskean atera ziren, sagardotegira buelta egin zuten eta jai giroan ibili ziren asteburu guztian.



Kintoak trikitilariekin batera herriko sarreran.

## Urdiain

## Zortzikoekin, kitto

Larunbatean Urdiaingo kintada guztiek ospatu zuten Santa Age-

da. Igande eguerdian, aldiz, aurtengo kintoek zortziko dantzatu zuten. Zortzi zortziko dantzatu ziren guztira.



Urdiaingo kintoek kuadrila argazkia egin zuten frontoiko harmailetan

## Altsasu

## Ihoteen atariko, erakusketa eta beste

Asteartean mustuko dute eta martxoaren 4ra arte ikusgai izanen da Altsasuko Iortia kultur gunean, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domeketan 19:00etatik 21:00etara

Inauteri Batzordeak herriko hiru ikas-tetxeetako guraso elkarteekin batera, beste behin, inauteriei buruzko erakusketa antolatuta du. Erakusketan Altsasuko ihoteko pertsonaia guztiak izanen dira, baina ikasleen ikuspegiak sortutako marrazki, eskultura eta bestelako artelanetan. Inauteri batzordeak segizioko pertsonaia ere jarriko ditu. Erakusketako berezitasuna pertsonaien irudiekin batzordeak eta GK-k (Guaixefundazioa) sortutako hiru kartelak izanen dira. Pertsonaien irudiekin batera haiei buruzko azalpenak ematen dituzte kartelak. Erakusketatik bukatzean ikastetxe bakoitzari bana emanen diote. Asteartean, Beatriz De la Vega Salinasen *Adarrak dantzan* dokumentala ikusteko aukera izanen da. Erakusketan mustuzarekin batera auzatea izanen da.

## Erakustaldiak

Erakusketa muntatzea nahikoa ez eta galtzak bete lan dituzte batzordeko kideek. Urtero moduan, ihoteen aurretik Intxostiapunta gaz-



Erakusketako panpinak argazkian.

te txokora inauteri segizioko pertsonaia guztiak eramanen dituzte eta haiei buruzko argibideak emanen dituzte. 18:00etan izanen da. Batzordeko kideek haurren inauteri segizioko pertsonaien jantziak eramanen dituzte eta Mila Kolore elkarteak kideek jantziko dituzte. Inauteriarren antzezpena egingen dute. Haiekin bat egingen duten Bilboko eta Iruñeko Anfasako 50 bat kideren aurrean. Arratsa borobiltzeko eta despeditzeko, denendako merendua izanen da. Domeka eguerdian, berriz, Erriberri barna ibiliko da Altsasuko ihote segizioa.

## Iturmendi

## Majo pasa zuten!

Ostiral gauean hasi zituzten Santa Ageda ospakizunak. Larunba-

tean eskean ibili ziren eta pastak eta moskatela eskaini zizkieten herritarrei. Bazkari eta afariak elkartean egin zituzten.



Urte desberdinetako kintoak elkartzen dira Iturmendin.

## Ziordia

## Bikain!

Ostiralean hasi eta igandean despeditu zituzten Santa Ageda ospa-

kizunak Ziordian. Kinto gazteek, kintoek eta kinto zaharrek ospatu zuten festa, 8 ziordiarrek guztira. Baita beste kintadek ere.



Ziordiko 8 gazte osatu zuten Ziordiko kinto-kuadrila.

## SAKANA

## Udalek militarren maniobrak salatu dituzte

Uharte Arakil, Arbizu eta Etxarri Aranzako alkateek ohar bateratua zabaldu zuten herenegun eta "Espainiako Armadak, Nafarroan, otsailaren 15-16 bitartean, antolatutako maniobrak eta mugimenduak" salatu zituzten. Hiru alkateek adierazi dutenez, "ez dugu militarrek gure herrietan martxa, maniobra edo gerrarako probarik egiterik nahi, gizarte baketsu eta desmilitarizatu eredu baten alde lanean ari garela. Gauzak horrela, gure herrietatik joateko exijitu nahi diogu Espainiako Armadari".

Nafarroako Komandantzia Militarren pertsonalaren eta ibilgailu militarren mugimendua iragarri zuen. 20 soldadu izanen zirela zehaztu zuen. Aizoaingo armadaren kuartelatik Urbasa-Andiarantz abiatu ziren martxan. Bidean, herenegun ibarreko aipatu hiru herri horietatik pasatzekoak ziren. Mendia zeharkatu eta atzo Jaitz, Argiñano, Errezu eta Iturgoiendik pasako dira kuartera itzuli aurretik. Ilbeltzaren 17an antzeko ariketa militarrek egin zuen soldadu talde batek Altsasutik abiatuta. Aurreko aldia 2015eko irailaren 15ean izan zen. Lakuntzatik Aralar alde-ra jo zuten.

## Lakuntza

## Ondare materiagabearen dokumentalaren aurkezpena

Larunbatean, 18:30ean, kultur etxean. Gaur, 19:00etan, errefuxiatuei buruzko dokumentala izanen da ikusgai

Lakuntzatik Lakuntzara izenburua du Labrit Multimedia prestatu duen dokumentala. Bihar hura ikusteko aukera izanen da. Ikus-entzunezkoan 20 lakuntzar ageri dira hizketan, herriko garai bateko ohiturez eta bizimoduez hizketan. Elkarrizketak 2009an grabatu ziren eta protagonistetako batzuk dagoeneko ezin izanen dute euren burua pantaila handian ikusi. Emanaldiaren ondoren dokumentalaren kopia eskuratzeko aukera izanen da.

## ERREFUXIATUAK HIZPIDE

Grezian eta Europan barnako errefuxiatu enegoera bertatik bertara ezagutzen duen Xabier Luna suhiltzailea izanen da Lakuntzan gaur. Apirilean Greziako Quios irlan Zaporeak taldearekin elkarlanean aritu zen. Garagarriaren 28an, berriz, errefuxiatuek Europara iristeko egiten dituzten bideak bizikletan egintzen, 4.000 km. Errefuxiatuei elkartasuna adierazi zien abentura Pedaleando por los refugiados dokumentalaren jaso du eta gaur Lakuntzan ikusgai izanen da. Lunarekin batera, Arena elkarte koordinatzailea ere etorriko da. Elkarte horrek bideratu du ilbeltzaren Lakuntzan jaso zenerrefuxiatuendako materiala.

## Bakaiku

## Etorkizuneko Bakaiku irudikatu eta oinarri nagusiak jartzeko prozesua



Bakaikuko zinegotziak bilera batean.

Udalak bakaikuarrek "parte hartzera gonbidatzen ditu. Denon artean nahi dugun herria erabakitzeke ezinbestekoa delako". Proposamenak bi hilabetez landuko dituzte. Maiatzaren hasieran aurkeztu eta bakaikuarrei aukeratzeko beta eman diete. Proposamen arabera aukeraketa eredu afinkatuko dute eta emaitzak batzarduz jakinaraziko dituzte.

Duela bi urte 16 urtetik gorako bakaikuarrek euren etxeetan udalaren inkesta bat jaso zuten. Udalak herriaren hurrengo 10 urte bitarteko beharrei aurre egiteko plana osatu nahi zuen herritarren parte-hartzearen bidez. 40 erantzunetik gora jaso zituen udalak eta haiek herriko diagnostikoa egiten lagundu ziguten eta ondorioen berri batzarrean eman zuten.

Abiatutako prozesu parte-hartzaileari heldu dio udalak eta pau-

so gehiago eman nahi ditu 2027ko Bakaiku nola izanen den definitzerakoan. Egoitz Urriza alkateak esan duenez, "horretarako, herritarren iritzia jaso eta beraiekin batera egin nahi dugu ibilbidea. Pairatzen dugun egoera ekonomikoak udala baliabide urriekin utzi du eta horiek ongi kudeatzea behar-beharrezkoa da. Hori dela eta, garrantzitsua iruditzen zaigu bideangeldiune bate gitea eta ondo hausnartzea".

Udal ordezkariak herritarrekin batera honako galderei erantzun nahi liekete: nolako Bakaiku irudikatzen dugu hamar urte barru? Zeintzuk dira herriaren erronkak? Erantzunak ematen asteko oinarria duela bi urte jasotako 40 inkestetik gorako emaitzetan sortutako diagnostikoa dago. Urrizak azaldu duenez, "orain ondorioak aztertu eta proposamen zehatzak osatuko ditugu, datorren hamar urteetan gau-

zaten saiatuko garenak".

## Lantaldeak eta epeak

Bakaikuko Udalak parte-hartze prozesua aurrera eramateko dozena erdi lantalde sortuko ditu:

ingurumena eta natur baliabideak, azpiegitura publikoak, kultura, euskara, parte-hartzea eta kirola. Urrizak haien egitekoak azaldu ditu: "euren arlotan proposamenak egiten dituzte. Gainera, genero eta adin gaiak zeharkakoak direnez bertan tratatuko dira".

Larunbatean, 18:00etan, batzarra egiten da udaletxean eta hor hasiko da bigarren prozesua. Han Bakaikuarrek udalak dituen asmoen berri jaso, ekarpenak egin eta dudak argitzeko aukera izanen dute. Martxo aurreneko bi astetan lantaldeen lehen bilerak egiten dira. Udalak bakoitzaren data eta haiekin harremanetan jartzeko moduak

(telefonoak, posta elektronikoak...) aurki jakinaraziko ditu.

Alkateak argitu duenez, "lantaldeak beren arloko koordinazio gune izanen dira eta hainbat parte-hartze modu utziko dituzte". Parte hartzea errazteko honako baliabideak zerrendatu ditu: lantalde irekiak, "nahi duenak edozein momentuan parte hartu dezake"; lantaldeen bilerak publikoak izanen dira eta garaiz ohartaraziko dira; lan taldeen bileren aktak eskuragarri izanen dira; ekarpenak bileretan eta aipatutako bitartekoen bidez egitea posible izanen da; prozesuan zehar, ostiraletan, zinegotziak udal bulegoa martxan jarriko dute, harreman zuzena bermatzeko eta, azkenik, udalak parte hartzea bultzatuko du eta prozesuan zehar hartzen diren erabakiak errespetatuko ditu.

Lantaldeak hautetsiek koordinatuko dituzte, "baina ez dute beste herritarrek baino ahalmen gehiago izanen". Lantalderen batean proposamen kontrajarriak aurkeztuko balira, "herritarren esku utziko litzateke aukeraketa". Azkenik, "beraien esperientzia eta jakintza elkartrukatzeko gonbidapena eginez", 1978tik honaino hautetsi izandako guztiei gutuna bidali udalak.

## Auzolana

Bakaikuko Udalak garagarri hasieran auzolana berreskuratzearan inguruko eztabaida abiatuko du, galdeketa garilean egiteko.

## SAKANA



Ergoienako ikuspegi orokorra.

## Kontzejuetako populazioa Sakanakoarekin alderatuta

Urtea	Sakana		Kontzejuak	
	Biztanleria	%	Biztanleria	%
1999	19.104	92,71	1.392	7,28
2003	19.832	93,17	1.353	6,82
2007	20.086	93,16	1.372	6,83
2011	20.776	93,17	1.418	6,82
2014	20.504	93,27	1.381	6,73
2016	20.255	93,13	1.390	6,86

## Kontzeju osatutako udalerrien bilakaera

Udalerrria	Urteak							2016-1999 Aldea		
	2016	2015	2014	2011	2007	2006	2003	1999	Kopurua %	
Arakil	952	955	941	956	907	882	867	879	73	8,30
Ergoiena	399	397	400	422	426	437	448	481	-82	-17,04

## Sakanadarren %6,86 kontzejuetan bizi da

Sakanako 16 kontzejuetako (Aizkorbe barne, ez bada ere) populazioak %0,65 gora egin zuen joan den urtean, 2015arekin alderatuta. 2016ko ilbeltzaren 1ean urte bat lehenago baino bederatzita pertsona gehiago bizi ziren ibarreko kontzejuetan, 1.390 guztira. Sakanako populazioaren %6,86 hain zuzen ere. 2015arekin alderatuta, 0,13ko igoera. Gainontzeko 13 herrietan 18.865 sakanar bizi gara, populazioaren %93,13. +www.guaixe.eus

FINAL-LAUDENAK

Nafarroako Bertsolari Txapelketa 2017

TAFALLA  
Centro Cultural Tafalla Kulturgunea - Otsailak 18, 17:30

AURITZ  
Kultur Etxea - Otsailak 19, 17:30

LAKUNTZA  
Kultur Etxea - Otsailak 26, 17:30

www.bertsotzale.eus

Laguntzailea

GUAIXE fundazioa

## barrutik kanpora

Iñaki Arakamaren senide eta lagunek izandako auto istripuak, bira igotzen du asteburuan gertatutako ezbehar kopurua.

Etixerat elkartetik salatu nahi dugu, presoak bisitatzeko eskubidea bermatzearren, bidaia luze bezain arriskutsuak egitera behartuta izaten direla astebururo ehunka euskal herritar, preso politiko en lagun eta senideak. 16 hildako eta hainbat zauritu suertatu dira espetxeetarako nahitaezko bidaia luzeetan.

Urteko lehenbiziko bi auto istripugertatu dira joan den asteburuan. Batetik, Jaenen preso dagoen Permin Sanpedro euskal preso politikoaren bi anaia eta gurasoek auto istripu bat jasan zuten larunbatean, Jaengo espetxera (800 km) asteburuko bisita egitera zihozazela. Aranda de Dueroetik gertu gertatu zen ezbeharra, aurretik zihozan kamioiaren gurgila lehertu ondoren, errepidean gelditu zen gurgil zatiaren kontra jo zuten. Bestetik, Sevillan, etxetik 882 kilometrora preso dagoen Iñaki Arakama euskal preso politikoaren ilobak, bere mutil-lagunak eta hirugarren lagun batek auto istripua jasan zuten larunbatean, arratsaldeko 18:00etan, Bejaren, Salamancan, asteburuko bisita egin eta etxera bueltarako bidaian. Autobidean txakur bat harrapatu ondoren, bolante-kolpeak jobehar izan zituzten kotxea bidetik ezateratzeko eta, azkenik, hesiakolpatu ostean autoa gelditzea lortu zuten.

Astebururo ehunka senidek eta lagunak istripuak sufritzeko arriskua izaten dute espetxeetarako bidean eta hori onartezina da. Kotxe horiek, Sanpedro eta Arakamaren senide eta lagunak autoek ez zuten errepide horietan egon behar. Hori da Etxeratek azpimarratu nahi duena. 28 urte beteko dira giza eskubideak urratzen dituen urrutzea aplikatzen hasi zirenetik eta gu, preso senide eta gertukoak, astero bidaia luze eta arriskutsuak egitera behartzen gaitu. Nahikoa da!

Mendekuan oinarritutako espetxe politikan aplikatzen diren salbuespen neurriak bere horretan mantentzen dituzte eta azkenaldian argitaratutako auto judizialek ez dute aldaketarik ekarri. Batzuen aldetik egindako irakurketa interesatuak alde batera utzita, euskal preso eta haien senide eta lagunei kalte egitea dute helburu. Horregatik, euskal gizartearen konfiantza osoa dugusal buespeneko neurri horiek bertan behera gelditzea lortuko duela. Euskal Herria gai zango da, Espainiar zein Frantziar Gobernuak inposatzen duten mendeku estrategiaren gainetik, giza eskubideak errespetarazteko. **ETXERAT**

## Irurtzun

## Mahaiaren inguruan erabakitze eskubideaz hizketan

Larunbatean, 12:00etan, udaletxean

Jose Beloki (Geroa Bai), Eneko Compains (EH Bildu) eta Iñigo Pascual (Ahal Dugu) erabakitze eskubidearen inguruan hizketan ariko dira bihar, Maialen Huarte Euskerria Irratiko kazetaria moderatzailea dela. Irurtzongo Gure Esku Dagok antolatu du mahai ingurua. Taldeak erabakitze eskubideari buruzko herri galdeketa prestatzen ari da garagartzaroaren 18rako, eta eskubide horren inguruan iritzi desberdinak ezagutarazteko balioko du biharko saioak.

Herri galdeketa antolatu ahal izateko Irurtzongo Gure Esku Dagok herritarren erroldaren %10aren sinadurak jaso behar ditu. Taldekideak langintza horretan buru-belarri ari dira. Nahi duenak bihar sinatzeko aukera



Irurtzongo plazako frontoian pankartarekin, GED dinamikari babesa ematen.

izan du. Inauterietan ere kalera aterako direla jakinarazi digute. Otsailean despidituko dute sinadura bilketa. Irurtzongo Gure

Esku Dagoko kideak orain arte herritarrek aurkezpenean, kriserik gabe, sinadura bilketa eta bestelakoetan emandako erantzuz

narekin pozik daude. Bakarren batek haiekin harremanetan jarri nahi badu Facebook sare sozialean duten profila erabili dezake.

## Altsasu



Asteartean, 20:15ean, Altsasuko kaleko argiak itzali ziren. Une horretan bertan, herriko hiru puntu zehatzetan ehunka kandela pizten hasi ziren, kandela ugari, iluntasunari argia emateko. Herri-Asanbladak deitu zuen argi itzaltze solidarioa, egun horretan bertan espetxean hiru hilabete bete zituzten Oihan Arnanzen, Jokin Unamunoren eta Adur Ramirez de Aldaren askatasuna eskatzeko. 20:00etan bildu ziren herritarrek lortuak zabalgunean. Adin guztietako Altsasuko herritar asko ziren. Hiru multzotan banatu ziren; multzo bat han geratu zen, beste batek Foru plazara jo zuen eta hirugarrena Zumalakarregi plazara abiatu zen. 20:15ean, argiak itzaltzerakoan, kandelak piztu ziren hiru toki jakin horietan. Espazio bakoitzean hitz bat idatzi zuten, 11k aske orain esaldia osatuz. 15 minutu ondoren, argiak piztu ziren eta ekitaldiari bukaera eman zitzaion, bildutako jendetzen txalo zaparrada artean.

## Iruñeko epaileak Altsasuko gazteen auzia Madrilen esku utzi du berriro

Abokatuak Nafarroako Lurralde Auzitegian helegitea aurkeztuko du

Iruñeko 3. instrukzio epaile Maria Paz Benitok atzera bota ditu Altsasuko 11 gazteen defentsak aurkeztutako apelazio eta erreforma helegiteak. Beraz, Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi du ferietako liskarraren auzia atzera ere. Gazteen defentsa abokatuak

## Prebentzio-neurririk ez auzipetutako adingabeendako

Ferietako liskarragatik auzipetutako 11 gazte altsasuarretatik bi adin txikikoak dira. Biek astelehenean Espainiako Auzitegi Nazionalako Adingabeen Epaitegi Zentralean izan ziren. Fiskaltzaren

epailearen erabakiaren kontrako helegitea aurkeztu du Nafarroako Lurralde Auzitegian. Altsasuko gazteen auzia Iruñean epaitzeko eskatuko du abokatuak.

Benito epailea izan zen ferietako auziaren instrukzioa abiarazi zuena. Baina azaroaren 8an inhitu eta Espainiako Auzitegi Nazionalaren esku utzi zuen, "terroris-

aurrean deklaratu zuten eta, ondoren, psikologoaren aurrean test psikologikoa egin zuten. Prebentzio-neurririk gabe aske gelditu dira bi adin txikikoak. Altsasun, iluntzean, polizia-muntaiak salatzeke ehun bat pertsonen ordu erdiko kontzentrazioa egin zuten. Han herri-asanbladako kideek gaztigatu zuten, bi adin

## Data gehiago

Gaur, ostirala, 19:00etan, udaletxe parean asteroko kontzentrazioa.

Domekan, 12:00etan, Dantza-lekuan 32. Altsasuko krosa.

modelitua" zelakoan. Defentsaren helegiteei azaroaren 22an erantzun zien halakorik aurkezterik ez zutela. Baina Nafarroako Lurralde Auzitegiko lehen aretoak defentsako abokatuaren kexa helegitea onartu zuen eta epailea ilbeltzaren 20tik helegitea aztertzen ari zen.

txikikoak gainontzeko bederatzia auzipetuen "mehatxu" bera dute. Biei, senideei eta gainontzeko auzipetuei babesa azaltzeko makina bat altsasuar autobus batean Madrilerajoa izan ziren. Eguneko bideo laburpena egiten ari zen herri-asanbladako kidea Espainiako Polizia Nazionalak identifikatu zuen eta grabatutako gutzia borrarazizioten.

## Uharte Arakil

## Gailurra Xtreme Beriainen

Gailurra Xtreme programarako Uharte Arakil-Beriain Km Bertikalaren igoera grabatuko dute ostiralean. 16:15ean Beriainen jendea egoteko deialdia egin du ETBK

Gailurra Xtreme programan Euskal Herriko mendi lasterketa, proba eta maratoi esanguratsuek pantailara eramana nahi dituzte. Ibon Gaztañaz-pik eta Irati Andak gidatuko dute saioa, eta hainbat kirolari ospetsuen laguntza izango dute. Otsailaren 23an hasiko dira Gailurra Xtrem emititzen.

Gaur Uharte Arakil-Beriain Km Bertikala probak duen ibilbidea grabatuko dute Gailurra Xtrem-eko kideek eta ETBKtik deialdia egin dute, ostiralean, 16:15ean, Beriaingo gailurrean jendea egoteko.

## SAKANA



## Haizetearekin kalteak

Igande iluntzetik astelehen eguerdira arte jo zuten hego-ekialdeko haize ufadek kalte ugari sortu zituzten. Hainbat zuhaitz, adar, antena, teilak eta seinale erroi dira, baita edukiontzia tokiz mugitu ere. Argi mozketa laburrak izan ziren. Suhiltzaileek Altsasun 16 alditan atera ziren. Brinkolarako trenbidea moztuta gelditu zen. Ziordian utzitako lantegi bateko xaflak autobiaraino botatzen. A-1eko trafikoa ere desbideratu zuten. Makina bat tokitan alarmak piztu ziren haizeak leihodo atek zabaltu zituelako. Aralarko meteorologia estazioan 161,1 km orduko haize boladak neurtu dira eta Etxarri Aranazkoan 112,4koak.



## SAKANA

## SGA zehaztutako turismo oinarriak garatzen hasiko da aurten

**Sakanako xendak, oinezko eta txirrindulariendako Donejakue bidea eta trail estazioa dira aurten itxura hartzen hasiko diren proiektuak. Horiek jasoak daude Sakanako turismo planean eta marketing planean**

Sakanako Garapen Agentziak (SGA) apirilaz geroztik turismo teknikaria du. Aurretik turismo arloan lana egin bazen ere, Paki Urbitarte teknikariaren kontratazioak lan hori azkartu egin zuen. Bere eta SGAREN joan den urteko lana Sakanako Plan Estrategikoan turismo arlo zehaztutako puntuak lantzea izan zen. Etxeko lana, hainbat eragilerekin makina bat bilera eskatu zituena. Oinarriak jarrita, aurreikusitakoa egiteko baliabideak bilatu behar ditu aurten. 2016ko memoria sektoreak ukitutako 20 bat eragileren aurrean aurkeztu zuen SGAK herenegun.

### Sakanako turismo eta marketing planak

Horiek egiteko agentziak turismo sektoreari galdetegia luzatu zion.

“Sektorearen aldetik galdetegia erantzutea zaila izan da. Banan-banan telefonoz deika aritunintzen galdetegiak bilduahalizateko” aitortu du Urbitartek. Bestetik, SGAK Sakanako turismo baliabideen inbentarioa egin zuen. Bi horiekin lortutako datuak zituztela deialdia egin eta enpresa **Bizi biziki** enpresari turismo eta marketing plana egiteko eman zioten. Haiak egiteko, turismo sektoreko eragileekin parte-hartze bilerak egin ziren.

Datu horietatik abiatuta diagnosia egiten hasi ziren. Egileak aitortu zuenez “lantzea kostatu zaigu”. Diagnosian baliabideen inbentarioa osatu eta baliabide bakoitza irizpide batzuen arabera aztertu dute. “Baliabide asko daude. Batzuk turistikoak izan daitezke, beste batzuk ez”. Turismo informazio bulegorik ez izatean bisitarien inguruko datuekin arazoak izan dituzte. Egungo produktuen analisiarekin osatu zuten diagnosia, produktu bakoitza zein segmentutan eta zein egoeratan



Aurreko bilera batean SGAREN arduradunen azalpenak jasotzen.

dagoen jakiteko. Ildo nagusiak SGARI eta udalei aurkeztu zieten. Bertako balioetan oinarritutako turismo plana osatu da.

Hiru lan ardatz nagusi atera ziren: merkatu eta produktua estra-

tegia lantzea, kokatzeko; hori garatzeko marketing plana egitea eta, azkenik, gobernantza estrategia. Hiru ardatzetan ekintzak zehaztu dira, aurtengo direnak zehatzago azalduta. Egileak esanzuzenez, “bali-

bideak baditugu, baina horietan eragin gabe aurrera egitea nahiko zaila da egitura indartu gabe”. Bi planak, aurki, [www.sakanagarazten.com](http://www.sakanagarazten.com) web orrian izanen dira. [+www.guaixe.eus](http://www.guaixe.eus)

## Donejakue bidea

Sakanako bidearen boluntario taldeak SGALanean hasi aurretik azterketa egin zuen eta Urbitartek esker ona azaldu zion. Informazioaz aparte “bidearen trazaketa bat zuten buruan”. Mirua enpresak Donejakue bidearen aurreproiektua egin du. Eta Sakanako mugikortasun sarea osatu dute. Aizkorbetik Ziordibarteko 45 km-ko ibilbidea da. Oinezkoendako eta bizikletendako bidea izanen da eta %99an bat egiten dute, Egiarretako puntu jakin batean izan ezik.

Baina herri guztietatik pasatzen ez denez, besteetan garraio-bide edo turismo-baliabideen ondotik pasatzen ez zenez haietara joateko bederatzita lotura aurreikusi dituzte, Donejakue bidearen inguruan beste 45 km gehiagoko sarea osatuz. Lotura horiek honakoak dira: Itxasperritik Errotzera, Itxasperritik Irurtzun eta Arakilgo herrietara, Arakilgo hegoaldetik, Aralarko monasteriora igoera, Uharte Arakilgo tren geltokia eta Arruazu, Arbizutik Ergoienako herrietara, Etxarriko tren gelto-



kia eta kanpina, Altsasutik San Pedro zelaira, Olatzagutikoa. “Sakanan orain arte mendialdea bultzatuta. Ditugun natur eremuak ikusita normala da, baina ibarrak historia balioa du eta aukera ematen du zikloturismoarendako” gogorazi du Mikel Albisuk aurreproiektuarenegeleak. Ibarreko Donejakue bidea zehazterakoan kontuan izan dute erromesak ez direla mendizaleak eta bide eroso behar dutela. Gainera, Ederbideak zehaztutako irizpideak bere egin dituzte, besteak beste: bideak ez du %6ko baino gehiagoko maldarik izanen, puntu zehatzetan izan ezik; bi bizikleta gurutzatzeko adina zabalera izan behar du eta bizikleta hibridoendako baliagarria izan behar du.

## Sakanako xendak

Ibarrean dauden xendak eta irizpide batzuen arabera, Sakanako xenden plana zehaztu da. Aurreneko fasean aztertu diren ibilbideetako batzuk mapa batean argitaratuko dira, haien inguruko informazio laburrekin batera.

Mapan agertuko diren xenda guztiek hasieran informazio panel bat dute, egoki seinalizatuta daude, seguruak dira eta bideak garbi daude. Gainera, tipologia desberdineko ibilbideen arteko oreka bilatu da. Honakoak agertuko dira xenden aurreneko mapa horretan: Irurtzungo putreena, Etxeberriko Aixitako gaztelua, Irañetako Urruntzura iturburu eta haritzen ibilbidea, Uharte Arakilgo Aralarko monasteriora eta meategiko bidea, Arbizuko borden ibilbidea, Unanutik Beriainera (seinalatzatu gabe), Etxarri Aranazko trikuharrien eta haritzen ibilbidea, Altsasuko Dantzaleku-San Pedro, Olatzagutiko portu zaharra eta Urbasako ibilbideak.

Gainontzeko bideak hurrengo faseetan gehituko lirateke. Daniel Torrentek azaldu zuenez, “babes bereziko bi guneren artean gaude: Aralar eta Urbasa-Andia. Babestutako eremu horietara joateko gonbidapena ibarraren ondotik sustatu nahi da”. Gainera, turismo jasagarriari lotutako xendak sustatu nahi dira: “garraio publikoa dugu ibarrean, tren edo autobusez edozein tokitatik, ibilgailurik gabe, etor daitezke”.

## Trail estazioa

“Jakirik Sakanan mendi lasterketa kontzentrazio handia dago. Proba horiek ibarra posionatzeaz aparte, bisitari erakartzen dituzte” azaldu du Urbitartek. Sakanan trail-estazio bat jartzea aztertzen ari dira. Urbitartek azaldu zuenez, Nafarroan ez dago trail-estaziorik, Gipuzkoan bi daude: Abaltzisketan eta Zegaman. “Aralar mendian tartean dela, Sakanan halako estazio bat sortzea litzateke gure asmoa, Euskal Herriko trail-estazioen sarean sartuta, elkarrekin sustapena egitea”. Sakana hiru garren sarrera litzateke. Trail-estazioak korrika egiteko ibilbideak dituen toki bat da. Hainbat km-tan ezin du beste halako estaziorik egon. Halako estazioak munduan barna daude eta korrikalariak batetik bestera mugitzen dira. Bai Gipuzkoako Foru Aldundiak baita trail estazioak homologatzen dituen erakundeak baiezkoa eman diote egitasmoari. Orain ibilbideen diseinua egin beharko da. “Hemengo korrikalariak Gipuzkoako zirkuituekin nola lotu aztertu beharko dute”. Bi aste barru mendi lasterketen antolatzaileekin biltzekoak dira.

## Sakanako hariztiak

Ibarreko natur-ondare horri balioa ematea aztertu dute. Albalarekin batera Oihanetik itsasora ibilbidea sortu zen. “Pasaiako ontziolan Sakanari buruzko gunean badago, baina hara doazen bisitariak Sakanara nola ekarri?” Altsasuko Dantzaleku-Usolarra 2014an egokitutako *Sakana, haritzen lurraldea*, xenda gako da. Proiektua landu dute harizti mintegia eta ipiñabarrasortze aurreikusitako duena, besteak beste. “Gure basoetatik baleontziak eraikitze materiala sortzen zela erakusteko”.

## Bidelagun Elkartea



Sakanako alojamentu, jatetxe eta turismo jardueraren presek osatzen dute elkartea. Herenegun bileran baliatu zuten enuren joan den urteko jardueraren errepasoazkarrak egiteko. Sakanaren berri Madrilgo Fitur eta Bilboko Expo-vacaciones azoketan eta Irurtzun-Arakilgo azokan eta Uharte Arakilgo Artzain Egunean eman zutela zabaldu zuten. Horrekin batera, ibarreko sektoreko profesionalek Sakanan bertan dauden natur-baliabideen berri izan dezaten ikastaroa antolatu zuten. Bestetik, argazkilaritza ikastaroa antolatu zuten SGAREkin, ibarreko argazki funtsa osatzeko. SGAK elkarteari laguntza tekniko ematen dio. Hainbat gaietan bitartekaritza lana egin du agentziak. Esaterako, ibarreko mendi lasterketen antolatzaileen eta Bidelagun Elkarteen lankidetzak hitzarmenak lagundu zituen. Edota, Turismo Departamentuaren diru-laguntzetarako dokumentazioa prestatzen lagundu zuen. Gaztigatu zuten, 2016an elkartera kide berriak batuz ziren. Horrekin batera, Sakanako turismo arloko eragileei kide egiteko gonbidapena luzatu zieten.

## Eskualdeen arteko elkarlana

SGAK ibarraren inguruko eskualdeekin elkarlana landu zuen. “Aralar tartean dugula kontuan izanda, Plazaola turismo partzuergoarekin orientazio turismo-produktu baten inguruan aritu gara. Elkarrekin orientazio mapa bat argitaratzea da asmoa”. Lizarraldeko turismo kontsorzioarekin mendi bizi-

kletendako espazioa osatzen ari da. Urbasa-Andia tartean dela, hura Sakanaraino luzatzeko zein aukera legokeen aztertu zuten. Bernoako galtzadaren kontura Goierriekin elkarrekin ekintzaren bat antolatzeak aukera mahai gainean jarri zuten, Goierri eta Sakana elkartzeko.

# 40 tanatorios IRACHE

aniversario

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

948 19 70 70

@Grupolrache

Grupolrache

www.tanatoriosirache.es

## Luis Ganuza Belascoain

Beti gu biyotzien aita.  
Eskerrak eman nehi diau  
gukin momentu latz hoiten  
yondu zarien guziei.

**Zu emaztie Axun,  
seme-alabak Ainhoa ta Raul,  
ta Oihana ta Iñaki**

Etxarri Aranatzen, 2017ko otsailan 10ien



## Agueda Maiza Erdocia



Isiltasunean elkartzen gintuzun,  
baina orain zure hutsunea  
entzuten dugu.

**Zure familiye**

Etxarri Aranatzen, 2017ko otsailaren 9an

## Luis Ganuza Belascoain



Gogoan izanen zaitugu beti  
elkarrekin pasa izan  
ditugun momentuengatik

**Zure lagunak**



## Luis Ganuza Belascoain

Une latz hauetan jaso ezazue  
gure besarkadarik beroena

**ALAGURIE**

## Javier Aldaz Gaujot

Gure ondotik joan zara,  
baina beti gure ondoan egonen zara.

Familia osoaren partez eskerrak eman nahi dizkizuegu,  
momentu latz hauetan, gure ondoan egon zareten guzkiei.

**Etxekoak**

*gure  
gogoan...*



# Oroigarriak

egiten ditugu



**gk**  
KOMUNIKAZIOA

948 564 275  
Foru plaza, 23-1 Altsasu  
gk@gkomunikazioa.eus



Eskertzak eta eskelak  
osteguneko goizeko  
11:00ak arte jasotzen  
ditugu.

**Bidali mezua  
eskelak@guaixe.eus-  
era edo hots egin 948  
564 275 telefonora**

guaixe.iragarkilaburrak.com

1 HIGIEZINAK

3 LANA/NEGOZIOAK

5 IBILGAILUAK

7 AISIA/KIROLA

2 TEKNOLOGIA

4 DENETARIK

6 HARREMANAK

8 FAMILIA/ETXEA

## NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Webgunean: [guaixe.iragarkilaburrak.com](http://guaixe.iragarkilaburrak.com)-en **doan**

**Astekarian:** Saldu/erosi, errentan eman/hartu, lan eskaintzak 8€ / 3 aste

## HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75

Posta elektronikoa: [iragarki@guaixe.eus](mailto:iragarki@guaixe.eus)

## LANA | NEGOZIOAK

### LAN ESKAINTZAK

**Uharte Arakilen Garbiñe Azurmendiren botikarako farmaziari bat behar da jornada osorako.**  
Kontratu mugagabea. Interesatuek deitu telefono honetara 675 551 510.

### IKASTAROK

**Argazkilaritza. Reflex kamera eta photoshopa.** 12 eta 30 urte bitarteko-  
endako. Martxoaren 8tik maiatzaren  
17ra, 16:30etik 18:30era, asteazkenetan  
Altsasuko Intxostiapunta gazte gunean.  
Izen-ematea 30 €, 948 564 785 edo  
intxostiapunta@altsasu.net.

### OPARITUTAKOAK

**Intxaurrendoa, gaztainondoa eta haritzak oparitzen ditut,** konpostetik jaiotakoak. Tel 656 711 356.

## OHARRAK

**Nafarroako haur kantari jaialdia 2017.** Izen-ematea zabalik dago 6-16 urte bitarteko. Nafarroako haur guztiak har dezakete parte; bakarlari, bikote zein taldetan. Izena emateko [amadominguez@tafallaikastola.org](mailto:amadominguez@tafallaikastola.org).  
Jaialdiak martxoak 18, Zangozan; 19an, Lakuntzan; 25ean Lesakan eta apirilaren 1ean, Burlatan.

### Enplegarritasuna hobetzeko biterkaritza eta aholkularitza zerbitzua.

Sakanako Enpresarien Elkarteak langabeei eta lan bila dabilzanendako duen aholkularitza zerbitzua da. Harremanetarako, 948 468 307 telefonoa.

### Auzolana Josefina Arregui klinikan.

Parte hartu nahi dutenek 948 56 38 50 (klinika) edo 689 03 51 02 (Patxi) telefonoetara hots egin dezatela

**Josefina Arregui klinikako bazkidea izan nahi baduzu,** urtean 12 € edo nahi duzun kopurua eman dezakezu.

Informazio gehiago [amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com](mailto:amigosjosefinaarreguilagunak@gmail.com) edo [amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com](http://amigosjosefinaarreguilagunak.blogspot.com)

**Nicoleren aldeko diru-bilketa.** Garun paralisia duen neska olaztiarra atzerrian operatzeko diru-bilketan ekarpena egin nahi duenak kontu korrante honetan sartu dezake dirua: ES33 2100 5365 2301 0002 9770.

### Etxarri Aranazko irakurketa taldea.

Martxoaren 9an, ostegun, 19:00etan Etxarriko liburategian elkartuko dira Kirmen Uriberen Elkarrekin esnatzeko liburuaz hizketatzeko.

### Mintzakide proiektua.

Egonkortzeko denon laguntza behar dugu, lagundu zabalzen eta finantzatzeko: <http://goteo.org/project/zu->

gabe-ezin

## OPATUTAKOAK / GALDUTAKOAK

### OPATUTAKOAK

**Altsasuko Udaltzaingoa Altsasun galdutako gauza hauek ditu:** diru-zorroak, poltsak eta nezeserrak: 31. Audifonoa: 1. Betaurrekoak eta betaurreko-zorroak: 42. Euritakoak eta mikilak: 19. Belatitakoak, kateak, eskumuturrekoak, eraztunak, erlojuak eta imitaziozko bitxiak: 31. Arropak eta oinetakoak: 48. Bizikletak eta patinak: 10. Beste objektu batzuk: 8. Etxeko giltzak eta ibilgailuak.

### GALDUTAKOAK

**Mugikorra galdu nuen.** LG H850 zilar kolorekoa, Arbizu eta Unanu artean. Deitu 948 56 42 75 (Guaixe).

## JAIOTZAK

- **Unai Oiz Zubieta,** otsailaren 4an Irurtzunen.
- **Laia Ruiz Mendinueta,** otsailaren 6an Altsasun.
- **Anaitz Urteaga Muñoz,** otsailaren 8an Altsasun.
- **Ahyah Cruickshank Etxeberria,** otsailaren 9an Arbizun.
- **Laia Casanovas Alegre,** otsailaren 11n Irurtzunen.
- **Jon Berdud Duran,** otsailaren 12an Altsasun.

## HERIOTZAK

- **Agueda Maiza Erdozia,** otsailaren 9an Etxarri Aranatzen.
- **Marcelino Gomez Losada,** otsailaren 9an Altsasun.
- **Francisco Javier Aldaz Gaujot,** otsailaren 10ean Altsasun.
- **Juana Marin Marin,** otsailaren 13an Altsasun.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da. Agertu nahi ez duenak, han jakinarazi dezala.

## Pilota



Joanes Bakaikoa.

## Zilarrezkoan Bakaikoak bere lehen partida irabazi zuen, Martijaren kaltetan

Errandoneari eta Martijari 9 eta 22 irabazi zieten Bakaikoak eta Ladis Galarzak

Aurten Asegarcerekin debutatu duen Joanes Bakaikoa pilotari etxarriarrak profesional mailako bere lehendabiziko garaipena lortu zuen igandean Tafallan. Zilarrezko Binakako 5. jardunaldian Bakaikoak eta Ladis Galarzak Errandonea eta Etxeberriko Julen Martija izan zituzten arerio. Etxarriarra bikain aritu zen aurreko koadroetan eta, Galarzarekin batera, 9 tantotan utzi zituzten Errandonea eta Martija. Profesional moduan eta Zilarrezko Binakakoan bere lehen

Zilarrezko Binakakoan Lasok eta Iturriagak 5 puntu dituzte, 3 puntu dituzten 3 biko daude—Elordi-Erostarbe, Dario-Jaunarena eta Arteaga II.a-Erasun—, Errandonea-Martijak eta Peña II.a-Salaberri bina puntu dituzte eta Bakaikoa-Ladis Galarzak eta Ugalde-Martinezek puntu bana.

Ostiralean Errandoneak eta Martijak Dario eta Jaunarena dituzte aurkari. Dario eta Jaunarenak 3 puntu dituzte eta Errandoneak eta Martijak 2 puntu. Beraz, jokoan dagoen puntua urrezkoa da bi bikoendako. Bestalde, puntu bakarra duten Bakaikoak eta Galarzak astelehenean jokatu dute 3 puntu dituzten Elordi eta Erostarberen kontra. Bakaikoak eta Galarzak ezinezkoa dute Zilarrezko Binakako finalerdietarako, baina txapelketan lehen garaipena lortzetik datoz eta bide horretan segitzeko asmoa dute. Hortaz, lehia bizia espero da.

### Zilarrezko Binakakoa. 6. jardunaldia

**Dario-Jaunarena / Errandonea-Martija** (ostiralean, 20:30ean, Irunen)

**Arteaga II.a-Erasun/Peña-Salaberri** (larunbatean Zizurkilan)

**Elordi-Erostarbe/Laso-Iturriaga** (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)

**Ugalde-Martinez / Bakaikoa-Galarza** (astelehenean, 16:30ean, Tolosan)

## irristaketa

## 380 irristalari lehiatuko dira bihar Olaztin

Larunbatean, 10:00etan, 2017ko Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako IV. Indoor jardunaldia hartuko du Erburua kiroldegiak. 380 irristalarien artean 30 sakandar izango dira

2017ko Nafarroako irristaketa denboraldia abian da eta Sakana Irristaketa taldeko kideek gogoz ekin diote denboraldiari. Hain zuzen ere, Nafarroako egutegiko lasterketa bat Sakanara etorriko da bihar. Izan ere, 2017ko Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako IV. Indoor jardunaldia hartuko du Olaztiko Erburua kiroldegiak, 10:00etatik aurrera. Jardunaldia antolatzen duen Sakana Irristaketa Taldeak Olaztiko Udalaren eta Nafarroako Irristaketa Federazioaren laguntza eta hainbat entitate eta komertzioen babesia izan du.

Guztira Nafarroako hainbat irristaketa klubetako 380 irristalari bilduko dira bihar Olaztin. Hori-tatik 30 inguru sakandarrak izango dira. Mini, aurre benjamin, kimuen eta haurren mailako irristalariak izango dira lehiatuko direnak. Orain arte Nafarroako Abiadura Irristaketa Txapelketako hiru

### Irristaketa sustatzea helburu



“Baliabide eskasak ditugu, baina, hala ere, gure oinarriko helburuen artean irristaketa sustatzea eta gure inguruan irristaketak garrantzia hartzea da. Horretarako, aurten bi lasterketa antolatuko ditugu Sakanan. Otsailaren 18an Olaztiko Erburua kiroldegiak Nafarroako ligan puntuagarria izango den indoor irristaketa proba hartuko du eta irailaren 16an, Altsasun, Sakana mailan egingo den lehendabiziko irristaketa trofeoa antolatuko dugu” azaldu dute Sakana Irristaketa Taldeak. Halaber, taldearen helburuen artean dago ere 2017rako Sakanan irristaketarako araudizko pista bat sortzea, baldintza egokietan entrenatu ahal izateko.

proba jokatu dira Antsoain, San Juan eta Zangozako frontoietan, eta bihar Erburua frontoian jokatu da IV. Indoor jardunaldia. Hasieran serieak jokatu dira eta, ondoren,

finalak. “Orain arte maila polita eman dute Sakana taldeko irristalariak eta ea bihar, etxean, horrela jarraitzen duten. Olaztiko probarekin frontoietan jokatu dute saioak

despedituko dira eta txapelketak pista jarraituko du” azaldu digute Sakana Irristaketa Taldeak. Oscar Zamarrón da Sakana Irristaketa Taldeko entrenatzailea.

## Pilota

## Binakakoa: aukerak badaude

**Ezkurdiak eta Merino II.ak Binakako hasierako bosgarren puntua lortu zuten Victor eta Albisuri irabazita (22 eta 12). Aldiz, Elezkano II.ak eta Zabaletak ez zuten punturik bildu eta bost punturik jarraitzen dute Irribarriaren eta Rezustaren kontra galdu eta gero (22 eta 18).**

Binakako hasierako ligaxkakako jardunaldia gazi-gozoa izan da bertan ari diren sakandarrendako.

Larunbatean, Labriten jokatu-tako partida lehiatuan, Irribarriak eta Rezustak 22 eta 18 irabazi zieten Elezkano II.ari eta Zabaletari. Hasieran, Danel Elezkano ongi ibili zen eta bera eta Zabaleta 1 eta 5 aurreratu ziren. Zabaleta txukun aritu zen baina ez zuen atzeko koadroetan beste batzuetan bezala agindu. Irribarriak dejada batekin tantoa berreskuratu zuen, eta Zabaletak erantzun ezin izan zituen bi sakeekin gutxinaka aldea ateratzen hasi ziren Irribarria eta Rezusta, 12 eta 7 aurreratu. Baina Zabaletak erantzuten jakin zuen eta 16ra eta 18ra berdindu zuten Elezkanok eta Zabaletak. Baina, bukaeran, 22 eta 18 irabazi zuten Irribarriak eta Rezustak. Zabaletak ez zuen ohi duen nagusitasuna izan eta bost punturik geratu ziren bera eta Elezkano.

Igandean, aldiz, Joseba Ezkurdiak eta David Merinok horrenbeste behar zuten euren bosgarren puntua lortu zuten Victorri eta Albisuri 22 eta 12 irabazi eta gero. Egia



Jose Javier Zabaletak atzean duen agintea berreskuratu beharko du. MIGUEL

esanda, Victorrek eta Albisuk akats bat bestearen atzetik egin zuten eta horrek garaipena eskutan utzizien Ezkurdiari eta Merinori.

Hasieran, atzeko koadroetan parez pare aritu ziren Merino eta Albisu, biak bikain jokatu. Baina Albisu noraezean hasi zen eta horrek hegoak eman zien Ezkurdiari eta Merinori. Victor ere akatsak egiten hasi zen eta, konturatu gabe, 15 eta 6 aurreratu ziren Ezkurdi eta Merino, segidan 10 tanto pilatuz. Victor arriskuak hartzen hasi zen baina ez zuen zortea alde izan eta txapa izan zen bere arerio nagusia. Ezkurdiari eta Merinori partidaren egotearekin nahikoa izan zitzairen garaipena lortzeko (22 eta 12). Horrela, airea

hartzeko behar beharrezkoa zuten bosgarren puntua lortu zuten eta finalerdietara sailkatzeko lehian sartu dira berriro.

### Sailkapena, berriro estu

Irribarriak eta Rezustak 9 puntu dituzte eta finalerdietarako sailkatuta daude. Baina beste hiru bikoteak zeintzuk izango diren ez da oraindik erabaki, sailkapena estu-estu baitago. Bengoetxea-Larunbek eta Artola-Albisuk seina puntu dituzte, eta 5 puntu dituzten hiru biko daude: Elezkano II.a-Zabaleta, Ezkurdi-Merino II.a eta Olaizola II.a-Untoria. Bukatzeko, Urrutikoetxea-Imazek eta Altuna III.a-Barriolak lau-na puntu dituzte.

### Datorrena

Geratzen diren 3 jardunaldietan asko dago erabakitzeko. 5 puntu dituzten Elezkanok eta Jose Javier Zabaletak 6 puntu dituzten Victor eta Albisu izango dituzte aurkari ostiralean Irunen. Hil ala biziko partida da biendako, arerio zuzenak baitira. Bi bikoak galtzetik datoz eta jokoan dagoen puntua urrezkoa da beraiendako.

Egoera berean daude Ezkurdi eta Merino. Seigarren puntua lortu nahi dute, eta zazpigarrena eskuratu nahi duten Bengoetxearen eta Larunberen kontra ariko dira igandean Eibarren. Ezinbesteko partida hau ere. Bi bikoak irabaztetik datoz, sentsazio onekin, eta ikuste-koa dago nor gailenduko den.

### Binakakoa: 12. jardunaldia

**Elezkano-Zabaleta/Victor-Albisu** (ostiralean, 20:30ean, Irunen. ETB1)

**Irribarria-Rezusta/Altuna III.a-Merino** (larunbatean, 17:45ean, Gasteizen. ETB1)

**Oinatz-Larunbe / Ezkurdi-Merino II.a** (igandean, 17:00etan, Eibarren. ETB1)

**Aimar-Untoria/Urrutikoetxea-Imaz** (astelehenean, 16:30ean, Tolosan)

**Futbola**

**FEDERATUTAKO TXAPELKETA**  
**PREFERENTE MAILA. 1. multzoa**

19. JARDUNALDIA  
**LAGUN ARTEA 3 - BERIAIN 3**  
**ETXARRI ARANATZ 1 - BIDEZARRA 0**  
Lagunek garaipena eskura izan zuten, 3 eta 1 aurreratu egon baitzen, baina Beriainek berdintzea lortu zuen. Lehen zatian Lagunek dominatu zuen eta Odonek eta Davilak gol bana sartu zuten. Baina bigarren zatian Beriainek partida kontrolatu zuen. Ate propioan gola sartu zuen Lagunek, zorigaitzoko jokaldi batean, baina, ondoren, Danik Lagunen hirugarrena sartu zuen. Beriainek bigarren gola sartu zuen eta 91. minutuan, sorpresaz, Beriainek berdindu zuen. Etxarri Aranatz, haizeak baldintzatu zuen partida. Bidezarra liderrarena aurrean ongi defendatzen jakin zuten etxarriarrek. Bigarren zatian Etxarri dominantzera pasa zen eta Goikoetxeak gola sartu zuen 59. minutuan. Hiru puntuak Etxarri geratu ziren.

Sailkapena >>

1. Bidezarra	43 p
3. Lagun Artea	31 p
6. Etxarri Aranatz	28 p

Asteburuko jardunaldia

**BIDEZARRA - LAGUN ARTEA**  
(Larunbatean, 16:00etan, Noainen)  
**ETXARRI ARANATZ - SAN ANDRES**  
(Igandean, 16:30ean, Etxarri Aranatz)

**ERREGIONAL MAILA. 1. multzoa**  
17. JARDUNALDIA

**ALTSASU 1 - SALESIANOS 3**  
Altsasuk gola egiteko bi aukera oso garbi izan zituen lehen zatian, baina barkatu zuen. Bigarren zatian, Salesianos taldekoek izan zuten lehenengo aukera gola sartu zuten. Egoera korapilotsuari buelta ematen jakin zuten altsasuarrek, Xabik berdindu baitzuen. Baina, tamalez, Salesianosek bigarrena sartu zuen eta, 92. minutuan, hirugarrena.

Sailkapena >>

1. San Jorge	39 p
7. Altsasu	18 p

Asteburuko jardunaldia

**PAMPLONA - ALTSASU**  
(Larunbatean, 15:45ean, Lizasoainen)

**EMAKUMEZKOEN ERREGIONALA**  
15. JARDUNALDIA

**ALTSASU 0 - PEÑA SPORT 1**  
Sailkapena >>

1. Osasuna	40 p
11. Altsasu	12 p

Asteburuko jardunaldia

**ALTSASU - BURLADES**  
(Larunbatean, 16:30ean, Dantzalekun)

**ELOMENDIKO TXAPELKETA**  
18. JARDUNALDIA

**ZALDUA 3 - APOLO 0**  
Sailkapena >>

1. Unziti	44 p
4. Zaldua	34 p

Asteburuko jardunaldia

**ZALDUA - BASATI** (Lekunberrin)

**Futbola**

**Sakanako Futbol 8 Topaketak: kimuak bueltan**

Sakanako Futbol Topaketetan, kimuen mailako futbolariak berriro ere Sakanako zelaietara bueltatuko dira. Hiru asteko atsedenaldiaren ondoren, igandean kimuen mailako 9. futbol jardunaldia jokatu da Altsasan, Olaztin eta Urdiainen.

**Sakanako Futbol 8 Topaketak**

**Kimuen 9. jardunaldia (igandean)**  
**10:00etan:** Etxarri Aranatz - Kai-xo (Dantzaleku)  
**11:00etan:** Tipi-Tapa / Sutegi (Olazti)  
**12:00etan:** Lagun Artea - Urdiain (Urdiainen)

**Txirrindularitza**



Ibai Jimenez, ibilgailuaren barruan. Aurrean, Izagirre eta Insausti. BAHRAIN-MERIDA

**Ibai Jimenez, Bahrain Merida taldeko masajista**

**Ion Izagirreren egutegia egingo du eta bere konfiantzazko masajista da**

Euskalteletik eta Movistarretik pasa eta gero, talde berria du Ion Izagirre ormaiztegiarrek, Bahrain-Merida taldea. Vincenzo Nibali da taldeburua eta Ion Izagirre

da bigarrena, hierarkian. Talde sendoa da Bahrain-Merida, aurrekontu handiarekin sortutakoa. Nasser printzea dago sorreraren atzean, eta helburua Bahrainen kirol kultura zabaltzea eta Bahrain ezagutaraztea da. Munduko toki

askotatik iritsitako puntako txirrindulari, entrenatzaile eta profesional bezala da. Eta, tartean altsasuar bat dago, Ibai Jimenez Claver masajista.

**Ion Izagirreren itzala**

Ibai Jimenez Euskaltel-Euskadin aritu zen lanean eta aurreko urtean Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesionalen masajistetako bat izan zen. Aurten Bahrain-Meridan ibiliko da, Ion Izagirreren itzala izango da. "Ibai Jimenez Altsasukoa da, konfiantzazko masajista, Euskaltel-Euskadin ibilizen, eta nire egutegia egingo du. Ni Teidera edo Benidormera baldin banoa, nirekin dator. Izan ere, taldeak erraztasun guztiak ematen dizkit. Dena. Prestatzeko garaian "Teidera joan nahi baduzu, joan: dena ordainduko dizugu", nonbaitera joan nahi baduzu, taldeak ordaintzen du; masajista, Ibai, beti alboan... masajea hartzeko Indiba makina eskura... erraztasun guztiak ditut" azaldu du Ion Izagirrek Berria egunkarian.

**Aralarrek 2017ko taldeak aurkeztuko ditu bihar**

**Larunbatean, 17:00etan, Etxarri Aranazko kultur etxean:** Sakana-ko Aralar Txirrindularitza Taldeak 2017ko denboraldirako asmoak, helburuak, egutegiak, antolatu beharreko probak eta denboraldirako prest dituen kategoria ezberdinetako taldeak aurkeztuko ditu. Ekitaldia Etxarriko kultur etxean hartuko du, bihar, larunbatean, 17:00etan.

**Egutegia**

Aurten Ibai Jimenez masajistaren lana Ion Izagirreren egutegiari lotua egonen da. Egun, Andaluziako Itzulia daude. Ondoren, Paris-Niza, Tirreno, Euskal Herriko Itzulia, klasikoak, Erromandia eta Frantziako Tourra datoz. Nabarmenezkoa da Tourrera taldeburu joango dela Izagirre, Nibali Girora joango baita taldeburu.



**Rural Kutxak 2017ko taldeak aurkeztu ditu**

**Amateur taldeko bi nafar bakarrak Aramendia iturmendierra eta Odei Juango lakuntzerra dira**

Aurreko ostegunean aurkeztu zituzten, Baluartan, Rural Kutxa-Seguros RGA talde profesionala eta talde amateurra. Juan Mari Guajardo speaker altsasuarrek egin zituen aurkezpen lanak.

Floren Esquisabel da Rural Kutxa-Seguros RGA taldeko presidentea. Talde profesionalak 20 txirrindulari ditu, Jose Migel Fernandez eta Eugenio Goikoetxearen aginduetara. "Taldeak egonkortasuna eta nazioarte mailan izena lortu du. Guztion lanarekin ibilbide honetan jarraitzea da helburua".

**Amateurrean bi nafar, Aramendia eta Juango txirrindulari sakandarrak**

Rural Kutxa talde amateurrean 25 txirrindulari ditu, bere aginduetara, Alberto Mazkianan zuzendari altsasuarrek. Talde oso gaztea da. Horietatik soilik bi dira nafarrak, eta sakandarrak biak, Odei Juango lakuntzerra (1995-11-06) eta Eneko Aramendia iturmendierra (1997-03-02). Juangok hirugarren denboraldia osatu du Rural Kutxan eta Aramendiak bigarrena. Aipatzekoa da aurten Burunda Txirrindularitza Klubetik ez dela txirrindularirik igo Rural Kutxara.

**Rural Kutxa-Seguros RGA 2017**



Jarraitzen dute: Pablo Alonso, Eneko Aramendia, Iker Azkarate, Pablo Benito, Xavier Cañellas, Carlos Cobos, Odei Juango, Mauricio Moreira eta Aitor Rodríguez. Berriak: Alex Burdoy, Alejandro Caro, Germán Castell, Franklin Chacón, Álvaro Cuadros, Javier Fuentes, Abel Gebrehwet, Arturo Grávalos, Pol Hervás, David Martín, Sergio Martín, Óscar Pelegrí, Jaime Sureda, Szymon Tracz, Gonzalo Serrano eta Freddy Ovett. Zuzendaria: Alberto Mazkianan.

**Saskibaloia**

**Finalerdietan erori zen Naiara Diezen Gernika**

**Erreginarene Kopako final laurdenetan irabazi eta gero, Perfumerias Avenidaren kontrako finalerdietan 48 eta 72 galdutako Gernika Lointek Bizkaia**

Erreginarene Kopa Gernikara ekartzeko ametsa ezin izan da gauzatu. Naiara Diez saskibaloia jokalaririk altsasuarren Gernika Lointek Bizkaia taldea finalerdietan erori zen, gerora finala irabazi zuen Perfumerias Avenida taldearen kontra ezin izan baitzen gailendu (48 eta 72).

Dena dela, Erreginarene Kopa ongi hasi zen Gernikako taldearentzat. Ostiralean, final laurdenetan, Al Qázeres taldea izan zuten aurkari gernikarrek eta, sekula-

ko partidan, Naiara Diez kapitainaren taldea finalerdietarako sailkatu zen, 66 eta 54 irabazi eta gero. "Oso partida lehiatua izan da. Bi taldeek ongi ezagutzen dugu elkar eta partida goitik behera prestatu dugu. Bigarren zatian egin dugun defentsa partida irabazteko giltzarria izan da eta baita Al Qázeres 54 puntutan uztea ere, gure batezbestekoaren barruan" azaldu zuen Naiara Diezek.

Larunbatean gernikarrek Salamancako Perfumerias Avenida zuten zain, talde ahaltsua. Izan ere taldea Liga Femeninako liderra da, eta Euroligako talde indartsua. Gernika Lointek taldeak hasibe-



Naiara Diez Erreginarene Koparako entrenatzen. GERNIKA LOINTEK

rrien akats batzuk egin zituen hasieran, errebotearen ondorengo pasean baloia galtzea eta beste. Gernikakoak ez ziren fin ibili. Saiatu ziren, baina, azkenean, ezinezkoa izan zen eta 48 eta 72 irabazi zuen Perfumerias Avenidak. Txa-

lotzekoa izan zen Gernikako zaleen jarrera. Nahiz eta galtzen joan, behin eta berriz animatu zuten bere taldea. Kiroltasuna, edozein gainetik. Eta Gernikako jokalariek bihotzez eskertu zuten euren zaleek emandako babesa.

## Atletismo

## XXXII. Altsasuko Krossa igandean

Dantzalekun jokatu da, 12:00etan Altsasukoak Aske ekimenaren aldekoa izango da eta bi distantzia egiteko aukera izango da: 4 km eta 8 km

2013ko ilbeltzean jokatu zen azkeneko Altsasuko Krossa, 31. edizioa izan zena. Ordutik jokatu gabe egon eta gero, kirol proba berreskuratu da eta igandean, otsailaren 19an XXXII. Altsasuko Krossa jokatu da, Dantzalekun, 12:00etan. Altsasukoak Aske ekimenaren alde antolatuta da herri krossa, Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak eta Sakana Triatloi Taldeak antolatuta.

Proba ahalik eta herrikoien izateko, bi distantziaren artean aukeratu ahalko dute korrikariek: 4 km edo 8 km. Bi distantzietako lehendabiziko hiru korrikariek saria jasoko dute.

## Izena ematea zabalik

XXXII. Altsasuko Krossen korrikalari federatuek eta federatu gabekoez hartu ahalko dute parte, baina federatu gabekoez aurretik eman behar dute izena, antolakuntzak egunerako aseguru eta beste xehetasun batzuk behar bezala lotu ahal izateko.

Aurretik izena emateko [www.kirolprobak.com](http://www.kirolprobak.com) web gunera edo [www.dantzalekusakana.com](http://www.dantzalekusakana.com)

## Dantzalekura hurbiltzeko deia



Dantzalekun karpa bat jarriko dute, proba jarraitzaera hurbiltzen direnek pintxo bat eta zer edo zer hartzeko aukera izan dezaten, eta bildutakoa Altsasukoak Aske laguntzera bideratuko da. "Kirola, festa, inguru, goiza pasatzeko modu polit bat izango da igandekoa. Altsasuko herri krossen parte hartzaera animatzen zaituztegu" gonbidatu dute Dantzaleku Sakana.

web gunetara jo behar da, otsailaren 17ko 20:00ak baino lehen. Triatloian, mendian edo atletismoan federatuta dauden korrikariek igandean, probaren egunean bertan eman ahalko dute izena. Izena ematea 10 eurokoa izango da.

## Altsasukoak Aske-ren alde

"Lau urte antolatu gabe egon eta gero, aurten Altsasuko krossa berreskuratu nahi izan dugu, bultzada bat eman nahi izan diogu, ia jendea animatzen den. Bide

batez, Altsasukoak Aske ekimenaren atzean, egoera gogor horretan dauden gazteei eta euren senitartekoei laguntza eman nahi izan diegu eta asmo horrekin antolatu dugu lasterketa hau. Izan ere, ateratzen den diru guztia Altsasukoak aske ekimenarendako bideratuko da" azaldu dute Dantzaleku Sakana atletismo klubetik.

Antolakuntzak 2 km-ko zirkuitua antolatu du Dantzalekuko eta Usolarraingo paraje zoragarrietan barna. Proba laburrekoek (4 km)

bi buelta emango dizkiote eta proba luzekoek, aldiz, lau itzuli (8 km). "Paraje zoragarrietatik pasatzen da proba eta bertatik korrika egitea gozamen da. Aurretik kros hau jokatu izan denean Nafarroako puntako korrikalariak etorri izan dira, baina edizio honetan, aipatutako laguntza hori bulkatu nahian, krossa herrikoia gozatu ere atea ireki nahi izan diogu. Inguru hau oso polita da eta hemen korrika egitea ederra da" nabarmendu dute Dantzaleku Sakana.

## Duatloia



Juan Luis Maiza, Euskadiko Duatloi Zirkuituko saria jasotzen. FESTAK

## Maiza, txapelduna

2016ko Duatloiko Euskal Zirkuituko txapeldunaren saria jaso zuen, beterano 2 mailan

Ilbeltzaren bukaeran urteroko Euskal Herriko duatloi eta triatloi gala ospatu zen Itziarko Salegi jatetxean. Bertan 2016 urteko triatleta eta duatleta onenak saritu ziren. Tartean, 2016ko Duatloiko Euskal Zirkuituko txapeldunaren saria jaso zuen Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza etxarriarra, beterano 2 mailan.

## Maiztarrek ekin diote denboraldiari, Barakaldon

XIX. Barakaldoko Duatloiak 2017ko duatloidenboraldiari eman dio hasiera. Igandean jokatu zen (5 km korrikan, 21 km bizikletan eta 2,5 km korrikan) eta 75 duatletek osatu zuten proba. Azkarrena Xabier Tijero izan zen (58:36). Sakana Triatloi Taldeko Juan Luis Maiza 18.a sailkatu zen (1:03:51), bete-

rano 2 mailan bigarren.

Bestalde, emakumezkoetan Ibone Sanchez gailendu zen (1:06:40). Sakana Triatloi Taldeko Leire Maiza 13.a iritsi zen helmugara (1:28:52). Kadete mailan bigarrena izan zen etxarriarra.

## Altsasuko duatloia martxoaren 18an eta Arbizuko 25ean

Zehaztua dago, dagoeneko 2017ko duatloi eta triatloi egutegia. VII. Altsasuko Duatloia martxoaren 18an jokatu da. Goizeko 10:30ean Nafar Kirol Jolasetako probak jokatu dira, haur eta gazteendako, eta arratsaldean proba nagusia, 15:45ean emakumezkoak eta 16:00etan gizonezkoak. Arbizuko Duatloia, aldiz, martxoaren 25ean jokatu da. Altsasuko Duatloian izena ematea zabalik dago [www.navarratriatlon.com](http://www.navarratriatlon.com) web gunean.

## Atletismoa



## Sakanako Atletismo Kopako sariak, banatuta

Asteazken gauean banatu ziren, Lasa Kirolak dendan, XIII. Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Saria txapelketako sariak.

## Lopez eta Audikana, txapeldunak

Sakanako Atletismo Kopan 2016an jokatu ondoko bost probek puntuatzen zuten: XIII. Aitzkozar Herri Krosak (maiatzak 21), III. Ziordiko Herri Krosak (maiatzak 28), XIII. Ergoienako Birak (irailak 17), XVI. Sakanako Herri Lasterketak (urriak 22) eta XXXVI. Barrikarteren Oroimenezko Oinezko Lasterketak (abenduak 8). Bada, proba horietan lehiatutako sakandarren emaitzak kontuan hartuta, emakumezkoetan Ginea Lopez Cid altsasuarra izan da txapelduna, Izaskun Beunza Azazeta olaztiarraren eta Maite Zaba-

leta Gomez etxarriarraren aurretik. Eta, gizonezkoetan, Raul Audikana Arrese olaztiarra izan da onena, Sergio Garcia de Eulate Maya altsasuarraren eta Alberto Martinez Trinidad lakuntzarraren aurretik.

Aipatutako guztiek saria jaso zuten, Lasa Kirolak dendan kirol materialean gastatzeko diru kopurua, lehenengoek 80 euro, bigarrenek 60 euro eta hirugarrenek 40 euro. Bestalde, Sakanako Atletismo Kopa-Lasa Kirolak Sarirako baliagarriak ziren bost probetan parte hartu zuten artean—Ginea Lopez, Maite Zabaleta, Raul Audikana, Santi Agirre eta Joxemari Mercero—saria zozketatu zen eta Raul Audikana izan zen zorteduna. Aurten ere Sakanako Atletismo Kopa antolatzeko asmoa du Mank-ek.

## Mendia

## Galdeano-Lokiz-Ganuz, Sakanako Mendizaleekin

Igandean, 7:30ean aterako da autobusa, Olaztitik

Sakanako Mendizaleak taldeak Lizarraldean barna mendii ibilaldia antolatu du iganderako. Galdeanotik aterata, Lokiz mendizerra izango dute helburu mendizaleek, azkenean Ganuzara heltzeko.

Autobusa goizeko 7:30ean aterako da Olaztitik, eta mendizale sakanadarrak herriz herri hartuko ditu. Izena ematea ostegun gauean itxi zen, baina, autobusean lekua egonez gero, izena eman daiteke 639 11 76 31 telefonora hots eginez.

## Mendi lasterketak

## Berazak Zestoa ekin dio denboraldiari

II. Kobaz Koba Trailen bosgarrena sailkatu zen uharterra

Igandean II. Kobaz Koba Trail lasterketa jokatu zen, Zestoa. Korrikariek bi proba ziztuzten aukeran, 25 km-koa eta 17 km-koa. 25 km-ko proba 246 korrikalari zuten eta Julen Martinez de Estibariz



(2:09:16) eta Alizia Olazabal irundarra (2:37:40) izan ziren azkarrenak. Jose Luis Beraza uharterra bosgarrena sartu zen (2:17:22). Proba laburra, 17 km-koa, 171 korrikalari burutu zuten eta Gorca Perce oiartzuarra (1:28:15) eta Oihana Azkorbebeitia abadiñoarra (1:41:53) gailendu ziren. Sailkapen absolutuan, Mikel San Martin etxarriarra 81. postuan sartu zen (2:08:12) eta Erkuden San Martin 89.a (2:11:37) iritsi zen, probako 8. emakumea.

## Areto futbola

## Derbia irabazita, Zaragoza du arerio Magna Gurpeak

Asteartean Lehen Mailako areto futbol ligako 20. jardunaldia jokatu zuten Magna Gurpea Xotak eta Tuterako Aspil Vidalek, talde berdearen etxean, Anaitasunan. Nafarroako areto futbolaren festa izan zen eta irurtzundarrak izan ziren garaile (3 eta 1), Roberto Martilek eta Rafa Usinek (2) sartutako golei esker. Usin izan zen jokalaririk onena. "Garaipen oso landua eta osogarrantzitsua izan da" nabarmendu zuen Imanol Arregi entrenatzaileak.

## GAUR ZARAGOZAN

Movistar Inter da liderra (48 puntu). Magna Gurpea 6.a da (36 puntu). Gaur, ostiralean, Zaragoza jokatu du talde berdeak, 21 punturekin sailkapenean 11.a den Rios Renovables taldearen kontra, 20:45ean.

## Zirika Zirkus Fetenen



**G**ijongo haurrendako antzerkiaren nazioarteko azoka, Feten, igandetik ostirala bitartean da. Aurtengo edizioan, 26.a, 17 herrialdeetako 700 proposamenen artean 77 konpainiaren lana aukeratu dute azokan erakusteko. Horien artean dago Zirika Zirkus konpainia eta bere *Tren geltokia* ikuskizuna. Obra horretan Zirika Zirkus-eko kideek clown, akrobazia eta malabareak elkartzen dituzte. Maribel Martinezek, Luis Lainezek eta Ainhoa Juanizek tren geltoki magiko batean topo eginen duten hiru pertsonaia oso berezi eta desberdinen papera jokatzeko dute: bere beldurrei aurre egiten dien ballet dantzari bat, boxeolari, sabeliztuna, malabarista, edabe-

saltzailea, lapurra, heroia... nondik nora doan ez dakien gizon politafetikoa eta hirukote bitxi hau osatzen duen eta geltokian bide batez dagoen gorputz, buru eta espiritualtasun entrenatzaile bat.

Ikuskizunak, euskaraz eta gaztelaniaz, gure geografian ibilbide luzea egin ondoren iritsiko da Gijonera. Hiru emanaldi egingen ditu Zirika Zirkusek: herenegun, Pumarin, Hegoaldeko Gijonen eta atzo eta gaur Begoña pasean, Jovellanos antzokiaren parean. Emanaldi guztiak 18:00etan dira. Publiko guztiendako emanaldia da. Zirika Zirkusek ez du aurreneko egonaldia Fetenen. 2015ean *Txarlestrup* ikuskizuna eskaini zuten eta epaimahaiaren aipamena jaso zuten.

## Ekonomia-krisiaren alderdi ilunaren kontura barre egiteko

Larunbatean, 20:00etan, Altsasuko lortia kultur gunean

**H**appy End (barre buruaz beste egiteko) suizidei, elkarri lagunduz, euren xedea betetzen laguntzen dien isilpeko elkarte bat da. Beste kide bati bere buruaz beste egiten lagunduz gero, Happy Endek zin egiten die euren

tzak dira, izan ere, Happy End, akats moralikez duen elkarte bat izateaz harro dago. Gauzak horrela, baliteke Martinekin salbuespen bat egin behar izatea.

Vaiven produccionek Altsasura umore beltzeko komeria, sainete existentziala dakar, gizaki izateaz gogoeta egiten duen, puripurian dauden gaiak umorearen



momentua iritsitakoan helburua betetzen lagunduko dien norbait izanzen dutela aldamenean. Elkarrekin krisiarekin loratu da, baina aldi hori gainditzen hasi da, baikortasuna ernatzen ari da eta suizidak uxatzen hasiak direla dirudi.

Telefonoak jotzeari utzi dion une horretan azaldu da Ainhoa, bere tratua bete duen suizida eta, Gabrielak, elkarteko koordinatzaileak, laguntzaile bat topatu zain dago. Elkartean sartu ahal izateko betekizunak arrunt zorro-

bidez parodiatuz. Horien artean daude, esaterako, tabua den arnas hartzeari uzteko erabaki zail eta librea; edozein ezbeharren inguruan loratzen diren negoziokoak.

### Fitxa

**Testu egilea:** Borja Ortiz de Gondra.

**Zuzendaria:** Iñaki Rikarte.

**Antzezleak:** Xabi Donosti, Garbiñe Insausti, Ana Pimienta.

## Etxeko Punk-rocka

Larunbatean, 23:30ean, Lakuntzako Sorgiñak tabernan

Embajada punk-rock taldeak lakuntzarrak kontzertua emanen du herrian, bihar, Sorgiñak tabernan. Laukote batek osatzen du taldea: Ibai (gitarra eta ahotsa), Igor (baxua eta koroak), Mikel (gitarra eta ahotsa) eta Fer (bateria eta koroak).

## Bretainiatik heldutako doinuak

Gaur, 22:00etan Altsasuko gaztetxea

Bretaniarrak dira Trouz An Noz (Gaueko zarata) taldekideak eta hangoak diren bretoiara eta galiera hizkuntzen defentsan aritzen dira. Euren musika eskaintza elektronikoa, bideo performantzeen, biolin eta zeltiar musikaren uztarketatik sortzen da. 2007an sortutako taldeak bigarren lana aurkeztuko du. Haiekin batera oholta partekatuko dute, batetik, Orreaga 778 taldekoak. Hernani eta Añorgako musikariek 2204an sortutakoa, punk-oi! Musika egiten dute. 2015ean Aske izan arte diskoa karrikaratu zuten eta lanberria argitaratzear dute. Bestetik, Nafarroa 1512 taldeak Fronte berria diskoa aurkeztuko du Altsasun. Street-punk doinuak lantzen dute arbizuarrek.

## Kantari jaialdietan izena emateko azken egunak



**H**eldu den astean despedituko da Nafarroako Haur eta Gaztetxo Kantari Jaialdietan izena emateko epea. 6 eta 16 urte bitarteko haur eta gazteek parte hartu dezakete, bakarka, bina edo taldeka. Batzuek eta besteek kantuzaharrak, berriak, haiek sortu edo moldatutakoak abestu ditzakete jaialdietan; a capella, instrumentuen laguntzaz edo karaoke moduan. Beti ere, euskaraz. Azken urteetan bezala, Amaia

Dominguezek hartu du bere gain antolakuntza.

Lau jaialdi izanen dira: Zangozan, martxoaren 18an; Lakuntzan, martxoaren 19an; Lesakan, martxoaren 25ean eta Burlatan, apirilaren 1ean. Horien ondoren despeditarako azken jaialdi bat izanen da.

Izena emateko

amadominguez@tafallaikastola.org

## bazterretik

Mar Gonzalez Ruiz de Larramendi

### Edertasunaren inguruko hausnarketa

**Ez dakit edertasunaren nozio batekin jaiotzen garen edo sentibiltate guztiei hitz egingo dien edertasun eredu bat zehaztu daitkeen. Eta hala ere, argi dago txiki-txikitatik edertzat jo behar ditugun hainbat errealitate aurkezten dizkigutela.**

Ederra dena garbia da, txukuna, geometrikoa, perfekzioz batea... Baina noizentzat perfektua? Grekotarrei zor diegu gaur egun mantentzen dugun edertasunaren definizioa. Euren artea simetrikoa eta biribila da, ukazina. Haurtzarotik ohitzen gaituzte antzinaroko irudi hauen forma dotore eta zuriak mirestera, eta horrela ahazten dugu denborak euren koloreak erantsi dituela jada, eta kaosaren gotorleku bihurtzen diren begi hutsak

ahantzuraren aztarna direla, ez antzinaroko artisten ondarea. Falta zaizkien hankak eta sudurrak, ez dituzte edertasunetik aldentzen, baina malen konia arraro apizten dute gure baitan.

Ohartzen ez bagara ere, aspaldiko aztarnategiek antzeko sentazioak azalarazten dizkigute. Osorik mantendu diren eraikinak jai-kiarazi zituzten heriotzaz mintzo dira. Eta bai, haien edertasuna antzeman dezakegu, baina zaila zaigu perfekzioaz hitz egitea, denboraren indarrak beldurtzen gaituelako.

Horrexegatik, agian, gure egungo gizartean saltzen zaigun edertasunak ez du malenkolia honekin zerikusirik izan nahi. Egunsentiak eta kolorez bustitako iluntzeak erakusten dizkigute edonon, paisaia orekatuak, itzalik gabeko irudiak. Musika alaia eta baikorra izan behar du, halabeharrez. Bakardadearen

lilura, gardentasun falta duten ikuspegi lainotsuen mirespena, debekatuta dirudi.

Euskal Herrian hazten den kultura eta sentimena betidanik somatu dut inguru ospel eta itsaso basatiekin lotuta. Portu aldeko kondairek eta Laboaren kantuek edertasun mingarri eta bizia gordetzen dute. Naturak ez du beti lasaia eta barea izan beharrik. Leteren eta Sarrionandiaren poemek gure baso eta ibaiak biltzen dituzte, laino berde hezeek bustitako begirada sakonak, eta maiz, beldurrik gabe ukitzen dituzte bakardadea eta heriotza.

Horrelakoetan, gure kulturaren ezaugarria dirudien goibeltasun kutsua beste herrialdeetako lainoekin lotzen da. Iragarriekin inposatzen dizkiguten irudietatik urrun, naturaren eta gizakiaren edertasun kontraesankor, misteriotsu eta ikargarria unibertseta da.

# Lezeetatik inauterirako saltoaren irudi bidezko azalpena

Gaur, 20:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean

**B**eatriz De la Vega Salinasek *Adarrak dantzan* dokumental laburra aurkeztuko du gaur. Altsasuko momotxorroa lezeetako xamanetatik etortzen den hipotesia lantzen du film labur horretan zuzendariak: "gizonaren eta animalien arteko fusioa boterea

eskuratze da. Munduko kultura guztietan dagoen fenomeno da, ez soilik hemengo. Baina baita hemen ere. Horrek poztzen nau: momotxorroa zerbait unibertsa da. Mundu guztian dago eta historia-urretik heldu da. Zentzu bat du. Hemen folklorea gelditu da. Horretaz ikertzen hasten zarenean xamanismoa mundu guztian dagoela jabetzen zara. Aspalditik".

10 minutuko iraupena du film laburra. Bi bertsiorekin dituzte, bata Urdaingo euskararen eta bestea gaztelaniaren. Gaur bi filmak, bata besteari atzetik emanen dira. Ondoren, Guillermo Piquero historialariak Minotauroa, labirintoa eta euskara hartuko ditu hizpide. De la Vega lan honen inguruko esperientziak hitz egingen du. Eta edozein zalantza argitzeko prest izanen dira.

## Bertako laguntzaileak

### Animazioa/Diseinua:

Jose Mari Morcillo, Morkots.

### Muntaia laguntzailea:

Boti.

### Kamera:

Ana Barandiaran.

### Iluminazioa:

Arantza Flores.

### Musika:

Juan Mari Beltran eta Danbolin Zar.

### Nahasketak eta soinua:

Itxura.

### Urdiainerara itzulpena:

Gorka Flores.

### Off-eko ahotsa:

Maidar Jaka.

## "Prestatzen urteak daramatzadan proiektu luzeago baten zatia da hau"

### Beatriz De la Vega

Zuzendaria

#### Zer da *Adarrak dantzan*?

Adarrak hitzaren zentzu bikoitzarekin jokatu du, animalienak eta zuhaitzenak. Gai nagusia inauteria den metamorfosia da, gauza batzuk besteetan bihurtzea. Momotxorroa zer den ongi azaltzen zuela iruditzen zitzaidan, nolabait dantza egiten duten adarrak baitira. Baita naturaren mugimendua.

#### Nondik inauteriarekiko kezka hori?

Prestatzen urteak daramatzadan proiektu luzeago baten zatia da hau. Historiaurreko artea, errituak, sorginkeria, xamanismoa edo nahi bezala deitu, horren inguruko proiektua da. Dokumentatu naiz. Kantabrian Del Castillo lezea bisitatzen ikusi nuen bazela estalagmita bat, zeinari argia proiektatuz gero paretan zutik dagoen bisonte baten irudia ikus daitekeen. Altsasuko momotxorroaz gogoratu nintzen. Iltzatuta gelditu zitzaidan. Bueltan momotxorroari eta erdi animalia, erdi pertsona diren pertsonaiei buruzko informazioa bilatzen hasi nintzen. Ez nuen ezer opatu ez mitologian ez inon. Bat-batean Txema Hornillaren *Zamalzain el Chamán y los Magos del Carnaval Vasco* (1988, Txertoa) liburuarekin topo egin nuen. Ez dut lortu harekin hitz egitea. Baina bere hipotesia da inauteriak xamanen errituen arrastoak direla. Han dutela jatorria. Nik hori nuen buruan. Baina ez naiz antropologoa. Nere buruzazioa zen. Beste norbait honen inguruko teoria ematea behar nuen.

#### Oinarri bila?

Bai. Joseph Cambell irakurria nuen. Horretaz asko hitz eginen du. Baina bertako norbait behar nuen, euskal herri inauteriarena. Hornillak eman zidan oinarria.



#### Noiz filmatu zenituen inauteriak?

Joan den urtean. Astearte inauterian. Egunez natura grabatu genuen (zuhaitzak, ibaiak, azien da...) eta gauze ihotea. Altsasuko ferietan plano batzuk grabatu nituen. Kamara lagun bati hots egin nion, Carles Gusiri: goazen Altsasuko momotxorroaren plano batzuk grabatzera. Dokumental hori nuen buruan, egitea luze joko duena. Euria eta errodajearen gogortasuna gorabehera, uste baino plano gehiago lortu genituen. Orduan, Altsasuko herri inauteriar buruzko dokumental labur bat egiteko adina dago hemen, pentsatu nuen. Aurrerago proiektuarekin segituko dut. Herri inauteriarekin ez nuen ohiko bideo-klipa egin nahi. Ez nuen horretara mugatu nahi. Aurrekonturik ere ez nuen teoria hau guztia 50-60 minututan garatzeko. Tarteke zerbait egitea erabaki nuen. Altsasuko astearte ihotearen irudiekin besteari buruzko informazioa ematen hasiko naiz: batzuei momotxorroaren irudia nondik etor daitekeen azaltzea. Andorra atzean, Pirinioan, Hiru Anaien Lezea dago, Frantzian. Han animaliekin dantzan dauden sorgin edo belagileak daude, txi-

rula edo musika arkuak jotzen. Aspaldi ezagutzen nuen eta nahiko kezkatzen ninduen. Kartelean koba horretako irudia agertzen da. Lezeetako arduradunek irudiak eskaini zizkidaten, oso jatorrak. Jose Mari Morcillo horiek birsortu ditu. Kartela eta lehen plano batzuk egin dituzte, teoria martxan jartzen dutenak: momotxorroaren pertsonaia lezeetatik heldu da, duela 15.000 urtekoa dela; lezeetako paretetan dantzan, xaman erritualetan dauden belagile horiek dira. Film laburrean barna sarbide-errituak kontatzen goaz: naturaren esnatzea, eraldaketa, gizonaren eta animalien arteko fusioa... Esperientzia, mistikoak, erlijiosoak, nahi bezala hots egin.

#### Noiz hasi zinen dokumentatzen?

Duela hamar urte. Iruñeko liburutegira joan eta gaiari buruzko liburuak hartzen nituen. Dokumentala filmatzen hasi behar ginenean haurdun gelditu nintzen eta gelditu nuen. Baina ideiarekin segitzen dut.

#### Dokumental luzean hipotesi bera landuko duzu?

Gai zabalagoa izanen da. Lezee-

tara jaitsieraz arituko da. Ez ziren bizitoki hutsak. Halako erritualetan egiten ziren tokiak ere baziren. Ez da inauterian zentratuta egonen.

#### Lan horrek datarik badu?

Ez. Hiru ordu laurdeneko edo ordu bateko gidoi bat sortzea lan luzea da. Informazioa jasoa dut. Gidoia eraiki behar dut orain eta, ondoren, finantzazioa bilatzera.

#### Ez da aurreneko aldia Urdaingo euskara erabiltzen duzuna.

Hala da. Sarabe film laburrekin egin nuen, duela 17 urte. Han bizi naiz eta amona handik heldu da. Euskara bat aukeratzekoan gertukoena Urdaingo da.

#### Ikus-entzunezkoetara zure buelta da hau?

Bai. Baina, inoiz ez dut utzi. Gauza txikiak egin izan ditut. Arte- eta zuzendaritza-laguntzaile izan naiz. Zerbait egiteko gogo nuen eta hau aukera zen. Argazki-zuzendariak konfiantza handia eman zidan. Makina bat film ezagunetan lan egin du. Acción Mutante filmean elkar ezagutu genuen. Etortzera animatu zen eta ni ere egitera animatu nintzen. Mustu ondoren jaialdietara aurkeztuko dut dokumentala.

## Non erabili

### SAKANA OPTIKA

#### ALTSASU

%15eko deskontua graduatutako betaurreko osotan (montura+lenteak). %10eko deskontua beste edozein artikulutan eta ikusmenaren errebisioa doan.

### HOSTOAK LOREGINTZA

#### LAKUNTZA

40 €ko erosketarekin, %10eko deskontua lorontzietan.

### ILAIA ILEAPAINDEGIA

#### ETXARRI ARANATZ

Deskontu bereziak.

### T. IRIARTE

#### IRURTZUN

50€ko erosketa eginez gero etxeko produktua opari.

### JOSELEN MODA

#### ALTSASU

100 €tik gorako erosketetan, 10€tako deskontu-bale bat hurrengoan erabiltzeko.

### INAKI BIZARTEGI-ILEAPAINDEGIA

#### ETXARRI ARANATZ

%10eko deskontua produktuetan.

### NUEVA IMAGEN

#### ALTSASU

%10eko deskontua.

### ARRUAZUKO OSTATUA

#### ARRUAZU

Asteburuko menuarekin, kafea edo txupittoa doan.

### LOGURE

#### ALTSASU

Bandalux 59,00€/m<sup>2</sup> (eskaintza berezietan izan ezik).

www.guaixe.eus-en zerranda osoa ikusgai



**BAZKIDETZA 50€**  
**948 564 275**

## G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: % 5	euria: % 35	euria: % 40	euria: % 15	euria: % 10	euria: % 10	euria: % 15
Min: 6 Max: 16	Min: 5 Max: 15	Min: 5 Max: 9	Min: 6 Max: 10	Min: 5 Max: 11	Min: 5 Max: 12	Min: 6 Max: 12

## : temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m <sup>2</sup>
Irurtzun	16	0.5	26.4
Etxarri A.	15	-0.1	44.5
Altsasu	14.5	-0.5	35.8
Aralar	6.7	-5	143.6
Urbasa	-	-	-

## : ilargiaren aldia >>

ilbehera	ilberri	ilgora	ilbete
18	26	5	13

EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK

www.ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor

SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

## Bazkide zozketa

URTARRILEKO SARIAK:

1. SARIA:

Ekainberri: 2 sarrera.  
Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

2.,3. ETA 4. SARIA:

Artazako Kanpina: %10eko deskontua.  
Lacturale: esneki lotea.  
Gaztezulo: 3 hilabetez doan.  
Magna Gurpea Xota: Bina sarrera

Ekain berri

# >> 11 galdera

## Ginesa Lopez Cid

Sakanako atletismo kopako irabazlea

Maider Betelu Ganboa

**1.Noiz hasi zinen korrika?**  
Betidanik egin izan dut kirola. Saskibaloian eta taekwondoan aritu nintzen eta korrika egiten nuen, baina aurreko kirolen osagarri moduan. Duela lau urte aipatu zidaten Mankomunitateak Sakanako Emakumeendako Atletismo Eskola antolatzen zuela; izena eman nuen eta ordutik daramat korrikan.



**5. Atletismo eskolako taldekideek ere lagun taldea sortu duzue.**  
Bai, lagun talde polita sortu dugu. Whatsaptaldean elkarrekin korrika egitera joateko geratzen gara.

**6. Argi dago atletismo eskolak lan handia egiten duela.**  
Argi eta garbi. Korrika egitea ez da zaila, baina klaseetara joatea interesgarria da teknikak ikasten dituzulako. Gora igotzerakoan nola zapatu, jaisterakoan nola... sekretu horiek. Guztiz gomendagarria da eskolan izena ematea.

**7. Hortik mendi lasterketetan aritzera pasa zineten.**  
Gure taldera etortzen zen Iruñeko neska batek esan zigun Iruñean emakume talde bat elkarrekin geratzen zela mendira korrika egitera joateko. Bertara joaten hasi ginen baina Sakanan taldea sortzea erabaki genuen. Dantzaleku-Sakanako Peio Bergararekin eta Mikel Goikoetxearekin igande goizero Altsasuko plazan geratzen gara eta mendira joaten gara korrika egitera. Ibilbideak erakusten dizkigute. Nahi duen guztia etorri daiteke, talde irekia da.

**8. Zer moduz mendi lasterketetan?**  
Oso ongi. Mendi lasterketak politagoak dira niretako. Teknika ona baduzu jaitsiera gozamen da. Hiru probatan aritu nintzen eta asko gustatu zitzaizkidan, Olaztikoa bereziki. Aurreneko aritzeko asmoa dut. 20 urte gutxiago banitu gehiago egingo nituzke. Baina lana, familia... lasterketa batera prestatua joan behar duzu, eta ez dut apenas astirik.

**9. Dantzaleku Sakanako juntako ardura nagusiak hartu dituzue.**  
Berriki 10 emakume egin gara Dantzaleku Sakana atletismo klubeko bazkide. Egun 176 bazkide gara. Izugarri lagundu digute, nola ez ginen bazkide egingo? Eta juntan sartu gara. Marijo Arza presidentea da, ni diruzaina, Leire idazkaria, Jone eta Maite bokalak... Ilusio handiarekin gaude. Orain artekoek urte asko daramatzate lanean eta arnas pixka bat eman nahi diegu, lanak konpartitu eta ideia berriak eskaini.

**10. 2016ko Sakanako Atletismo Kopa irabazi duzu. Zorionak!**  
Eskerrik asko! Ni ez naiz azkarrena izan, konstanteena baizik. Puntuak pilatzen hasi nintzen, probaguztietan aritu nintzen eta, azkenean, lehendabiziko gertatu nintzen. Proba hauetan aritu diren korrikalari sakandar guztiak zoriondu nahi ditut, 54 gizon eta 15 emakume, Sakanako Atletismo Kopa ospatzea ahalbidetzen dutelako. Kopa lortzea nire lana eta esfortzua kostatu zait. Adina nabaritzen da, erreku-peratzerakoan batez ere, eta mendiko lasterketetan bereziki. Honek guztiak duela 20 urte harrapatuko banindu... Baina oso pozik nago korrika egiten hasi izanagatik.

**11. Igandean, 12:00etan, Dantzalekun, XXXII. Altsasuko krosa antolatu duzue.**  
Altsasuko krosa ikusgarria da. Ibilbide paregabea du, ederra. Garrantzitsuena hastea eta bukatzea da, norbera bere erritmoan. Osoproba herrikoia izango da. Parte hartzera animatzen zaituztet!

## Papergintza pertsonalizatua

Orriak  
Gutun-azalak  
Txartelak  
Karpetak  
Koadernoak...

gk

KOMUNIKAZIOA

Foru plaza, 23-1. Altsasu | 948 564 275 | 948 562 107  
gk@gkomunikazioa.eus | www.gkomunikazioa.eus